

Año LVI. urtea

138 - 2024

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



FONTES

LINGVÆ

VASCONVM

STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

1958ko teatro-testu itzulien lehiaketa Pariseko Eskual Etxean

Miren Ibarluzea Santisteban

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LVI. urtea - N.º 138. zk. - 2024

Uztaila-abendua / Julio-diciembre

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

(Euskal) ipuingintzaren gakoak: Iban Zalduren «Ipuina adulterioa da» Mikel Ayerbe Sudupe	325
Sluicing in Basque: a move-and-delete analysis Irene Macazaga Núñez	341
Hiru euskal testu argitara: Getariako eskutitzak (1796-1797) Olatz Leturiaga Angoitia	375
Uxue Apaolazaren «Manoletinak» (<i>Bihurguneko nasa</i>) ipuineko ekfrasiez: irakurketa proposamen bat Leire Iruretagoiena Goikoetxea	421
Aspectos de la formación del <i>Vocabulario Pomier</i> y su relación con el <i>Diccionario Trilingüe</i> : hápax, supuestas voces septentrionales y segundas documentaciones Joseba A. Lakarra	443
Haurtzarora eta nerabezaroa babesteko Gipuzkoako egoitza-harrerak: euskara, tutelatu ohien bizipenak eta hizkuntza-eskubideak Joana Miguelena Torrado, Odei Guirado Irasuegi, Maria Dosil Santamaria	563
Komunikazio-antsietatea, hezkuntza formala eta euskarazko hizkera informalaren ikas-irakaskuntza Odei Guirado, Alaitz Santos	587
1958ko teatro-testu itzulien lehiaketa Pariseko Eskual Etxean Miren Ibarluzea Santisteban	617
Kontzientzia metalinguistikoa eta eleaniztasuna: berrikusketa bibliografiko bat Artzai Gaspar	649
Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals	677

1958ko teatro-testu itzulien lehiaketa Pariseko Eskual Etxean

Concurso de traducción de textos teatrales en la Casa Vasca de París en 1958

Theatrical translation contest at the Basque House in Paris in 1958

Miren Ibarluzea Santisteban
Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU
miren.ibarluzea@ehu.eus
<https://orcid.org/0000-0002-2377-2922>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv138.8>

Lan hau MHLI ikerketa-taldearen proiektuon abaroen egin da: IT 1579-22 (Eusko Jaurlaritza) eta PID2021-125952NB-I00 (MICIU/AEI/10.13039/501100011033 eta FEDER, UE).

Jasotze data: 2024/09/24. Behin-behineko onartze data: 2024/11/06. Behin betiko onartze data: 2024/12/13.

LABURPENA

Frankismo-garaian (1958) Parisen antolatutako teatro-lanen itzulpen-sariketari buruzko datu berriak dakartza lan honek. Euskarazko literatura itzuliaren esparruko bitartekaritza-egitura bat aztertzen da, erbeste-garaiko itzulpenen eragileei eta ekoizpen- zein zirkulazio-baldintzei begiratuta. Batetik, garaiko literatura itzulia kokatzeko, erbesteko kulturgintzaren, literaturaren, antzerkiaren eta itzulpenaren ekoizpenari buruzkoak berrikusten dira, bai eta ezagutzen diren itzulpen-sariketen berri eman ere. Bigarrenik, sariketaren datuen analisisa egiten da, erbestealdiko literatura itzuliaren esparruko harreman eta gatazken sarea, eta egituren nolakotasuna agerraraziz.

Gako hitzak: literatura itzuliaren soziologia; euskal itzulpengintzaren historia; antzerkia; diaspora; erbestea.

RESUMEN

En este trabajo se aportan nuevos datos sobre un certamen de traducción teatral organizado en París durante el franquismo (1958). Se analiza una estructura de mediación en el ámbito de la literatura traducida al euskera, atendiendo a agentes de traducción en el exilio y a condiciones de producción y circulación del momento. Por un lado, para contextualizar la literatura traducida de la época, se revisan la producción cultural, literaria, teatral y de traducción en el exilio, y los premios de traducción. En segundo lugar, se analizan los datos sobre el certamen, revelando una red de relaciones y conflictos y la naturaleza de las estructuras del campo de la traducción en el exilio.

Palabras clave: sociología de la literatura traducida; historia de la traducción vasca; teatro; diáspora; exilio.

ABSTRACT

This paper provides data on a theatrical translation contest organised in Paris during the Francoism (1958). It analyses a mediation structure in the field of translated literature into Basque, taking into account the agents of translation in exile and the conditions of production and circulation at the time. On the one hand, in order to contextualise the translated literature of the period, the cultural, literary, theatrical and translation production in exile are reviewed, as well as the translation prizes we know. Secondly, we analyse data on the competition, revealing a network of relationships and conflicts as well as the nature of the structures of the field of translation in exile.

Keywords: sociology of translated literature; history of Basque translation; theatre; diaspora; exile.

1. SARRERA. 2. 1950ETAKO EUSKAL ERBESTEKO KULTURGINTZA, ITZULPENA ETA ANTZERKIA TESTUINGURATUZ. 3. ITZULPEN-SARIKETAK ETA -SARIAK EUSKAL LITERATURA ITZULIAREN BARNE-EREMUAN. 4. PARISEKO 1958KO SARIKETAREN BERRI GAUR ARTE. 5. PARISEKO ESKUAL ETXEKO ELGAR ALDIZKARIAN 1958KO SARIKETAZ BILDUA. 6. PARISEKO 1958KO TEATRO-TESTUEN ITZULPEN-SARIKETA EZTABAIDAGAI: EGITUREZ ETA BILAKABIDEAZ. 7. AZKEN BURUKOA. 8. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Literaturaren soziologiak bestelako diskurtso sozialen pare kokatu ditu literatura-lanak, eta horiek bideratzen dituzten errepresentazioak eta balioak agerrarazi ditu. Halaber, literaturaren soziologiak ekoizpen-baldintzen inguruko auzi indibidual eta kolektiboak azaleratu ditu. Horrek, besteak beste, testuaren eta kanpo-eraginaren arteko bitartekaritza buruzko gogoeta ekarri du (Sapiro, 2014, 107. or.). Bitartekaritza hainbat mailatan gertatzen da (Sapiro, 2014, 107.-108. or.), eta baldintzatu egiten dute, adibidez, botere politikoek, ekonomikoek eta erlijiosoek literaturarekin dauzkaten loturek, eta horiek xedatutako gizarte-erolek, idazleen gizarte-bilguneek, lanbidean aritzeko baldintzek, antolamenduak eta ideologia profesionalak, letren arloko munduaren funtzionamenduak, egileen rol sozialak eta erakundeak (akademiak, taldeak, sariketak, aldizkariak...), eta abarrek (Sapiro, 2014, 35. or.). Sormenaren eremuan gertatzen diren bitartekaritzak oso loturik daude literaturaren espazioekin, horiei dagokien une historikoekin eta sortzaileen ibilbideekin... Halaber, juzgu estetikoak ere eragina du bitartekaritzan (Heilbron & Sapiro, 2002).

Hala, itzulpenari gagozkioalarik, arretaz aztertzeakoak dira literaturaren eremuan itzulpen-jardunean eta itzulpenen produkzioan eta zirkulazioan eragiten duten erakunde eta eragileak (enbaxadak, kultur institutuak, itzultzaile-elkarteak, herrialde bateko literatura ezagutarazten duten aldizkariak, nazioarteko azokak, agenteak, argitaletxeak, autoreak, itzultzaileak, kritikariak, inprimatutako testuen kontrola, edizio-munduaren egitura, bildumak, sariketak...) (Heilbron & Sapiro, 2002). Hain zuzen ere, horiek dira eremu literarioa definitzen duten instantziak. Gauzak horrela, formazio- eta sozializazio-instantziak (ikastetxeak, unibertsitatea, eskola espezializatuak...), sozializatorako guneak (saloiak, batzarrak, kafeak...), ekoizpenerako eta zabalkunderako erakundeak

(aldizkariak, editoreak, prentsa, bibliotekak...), kontsakrazio-instantziak (sariak, akademiak, elkarteak...), profesionalen elkarteak (autoreen elkarteak, sindikatuak...), literatura-talde edo -eskolak ikerketagai dira itzulpenaren soziologiaren argitan, literaturaren eremuko jardueren erregulatzailerak, kanpo-eraginaren eta barne-eraginaren arteko elkarreaginaren espazio eta politika-, finantza- eta ekonomia-botereekiko elkarriketa- eta gatazka-espazioak, diren aldetik (Sapiro, 2014, 48. or.).

Ibarluzeak (2017) proposatzen du itzulpen-zerrendetatik haratagoko eragileen azterketak ekarriko lukeela garaia itzulpen-esparruaren deskripzio egoki baterako bidea. Bada, hemen aurkezten dugun itzulpen-saria garaiko itzulpengintza egituratu zuten sareen erakusgarri da, eta euskal itzulpengintzari buruz orain arteko lanetatik haratagoko informazioa dakar. Izan ere, salbuespenak salbuespen, gaur arteko euskal literatur historiografietan eta euskal itzulpenaren gaineko narrazio historikoetan, ikuspegi bio-bibliografikoa baliatu izan da eskuarki euskal itzulpenen ekoizpenaren bilakaerari begiratzeko eta, hortaz, ez zaie hainbesteko arretarik eman itzulitako literatura-testuen bitartekari edota kontsakrazio-agentziei. Lehenago esan dugunez: «Gure ustez, itzulpenaren soziologiaren ikuspegia baliatzeak (hots, itzulpenaren historiografia eremuko eragileen posizioei eta eremuko praktiken funtzioei erreparatuta egiteak) bideak zabaltzen ditu» orain arte ikuspegi sistemikoen bidez egindako orokortzeak frogatzeko (Ibarluzea, 2020, 322. or.).

2. 1950ETAKO EUSKAL ERBESTEKO KULTURGINTZA, ITZULPENA ETA ANTZERKIA TESTUINGURATUZ

Ezbairik gabe, garaiko baldintza kultural, politiko eta ekonomiko askotarikoen isla da 1958ko itzulpen-sariketa eta, hein handi batean, 1950eko hamarkadan hainbat esparrutan gertatzen ari ziren hausturen isla edo emaitza.

Bigarren Euskara Modernoaren garaian (Camino, 2018) kokatzen da, alderdi modernoaren sorrera, abertzaletasun politikoaren garapena, industrializazioa eta hiritartzea... gertatzen ari ziren unean eta euskal kulturaren loraldia gerrak eta frankismoak eten zuten unean. Alfabetatzea, laizismoa eta euskal kulturaren berriztatzea eta aberastea dira euskararen historiaren garai honetako ezaugarriak, prentsa irakurtzeko ohituraren hedapenarekin batera, kontuan harturik, halaber, lehen hezkuntzako ikasketak zabalago zirela. Baina, euskaldun kopurua igota ere, euskarak atzerakada bizi zuen, galera geografikoa ez ezik, estatus-galera izan zuelako. Halere, fenomeno horrek berak aurkako erreakziorik ere sortu zuen, eta, besteak beste, euskararen aldeko zenbait mugimendu sortu ziren, bai eta euskal kulturari eta hizkuntzari lotutako hainbat egitura (akademia, elkarte, aldizkari...) ere (Camino, 2018). Bada, horietako batzuk erbestean sortu ziren.

Euskal erbestean esparru abertzalea eta errepublikazalea ezberdintzen ditu Ascuncek eta, aldeak dauden arren bi esparruetako kultur ekoizpenen hizkuntzan eta nolakotasunean, gai komunak jorratu ziren bietan: gerraren gomuta, exilioko esperientzia, aberriko itzulera, harrera-herrialdeko jendearen jarrera, aberriarekiko nostalgia zein aberriko historia edota bertako pertsonaia historikoak (González-Allende, 2016a, 66. or.). Bada, euskarazko kulturgintzari esparru abertzaleak heldu zion, eta

erbesterratu errepublikazaleen aldean, salbuespeneko kulturagintza egin zuen, boluntarismoan oinarritua, abertzale euskaldunak gertuago baitzeuden politikaren eta erlijioaren mundutik kulturagintza profesionaletik baino, eta industria eta landa-eremuetatik baitzetozen (González-Allende, 2016a, 67. or.; 2016b, 17. or.). Gainera, euskal abertzaleen kultura hartzaile gutxikoa izan zen, diasporako zirkulu minoritarioan zeudelako hartzaile posibleak (González-Allende, 2016a, 68. or.). Halere, egungo euskal kulturak asko zor dio erbesteari (González-Allende, 2016a, 65. or.), zubia izan zelako euskarazko ekoizpenean gerraurrearen eta hirurogeiko hamarkadako biziberritze intelektualaren artean. Lotune hori erbestean argitaratutako aldizkari eta prentsa elebidunaren zein elebakarraren bidez egin zen batez ere (Zabala, 2016, 99. or.).

Gogoratzekoa da erbesteko aldizkari eta prentsa-sareak erbesteko euskal gobernuaren planaren ildoan sortu zirela, hauek baitzituen xede: aldizkari espezializatuen eta ikerketa-institutuen bidezko kulturaren azterketa (*Gernika, Euzko Jakintza*, Instituto Americano de Estudios Vascos eta haren buletina), euskal idazleen eta ikertzaileen hizkuntza-langaiak argitaratzea (hiztegiak, gramatikak...), euskararen sustapenerako plana (eskolen sarea), Eusko Ikaskuntzaren Biltzar Nagusiak antolatzea (1948an eta 1954an izan ziren Ipar Euskal Herrian), itzulpenak suspertzea eta euskal kulturaren zabalkundea (Irujo, 2009, 16.-17. or.). Erbesteak lagundu behar zuen euskal kultur ekoizpena, errepresioa eta zentsura nagusitu baitziren 1936-1975 bitartean Hego Euskal Herrian.

Euskarazko argitalpenen ekoizpenari dagokionez, «frankismoak ez du onartzen euskararen eta, hortaz, euskal liburuaren egiteko kulturala» (Torrealdai, 1997, 126. or.); gainera, frankismoa itzulpenak euskarari eransten dion homologagarritasunaren aurka ageri da, «1962ra arte behintzat gogoz kontra onartzen ditu itzulpenak» (Torrealdai, 1997, 126. or.). Era berean, frankismoa ez da euskal teatroaren erabateko lagun, eta hainbat egilek antzerki-tradizioari eutsi bazioten ere, eta itzulpenek arrakasta izan zuten arren (bost lanetik bat itzulia zen), antzerki-lanek behera egin zuten frankismoaren garaian, traba handiak jarri baitzitzaizkion, argitaratzeko ez ezik baita taularatzeko ere (Torrealdai, 1997, 153.-154. or.).

Euskal liburugintzari erreparatzen badiogu, 1936-75 bitartean 1733 titulu eman ziren argitara, horietako % 93,8 nobedadeak, eta % 6,2 berrargitalpenak. Horietarik guztietarik % 7,7 jatorrizkoak, eta % 22,3 itzulitakoak (Torrealdai, 1997, 149. or.). Bada, tarte horretan argitaratutako 544 nobedadeetarik % 15,2 da antzerkia, olerkiaren, narratibaren eta herri-literaturaren atzetik (Torrealdai, 1997, 152. or.). Halaber, eta Torrealdai nabarmentzen duenez, garaiko ekoizpenaren «daturik ohargarriena literatur liburuen lehen postua da. Lehen aldiz euskal liburugintzaren historian. Eta, azkeneko aldiz, bestalde, gure egunetan helduen literaturaren aurretik baitatoz bai irakaskuntzako liburua, bai haur eta gazteentzako» (Torrealdai, 1997, 151. or.).

Gil Fombellidak (2008, 2009, 2016) azaltzen du antzerki-ekoizpenaren bilakabidea: 1936 baino lehenago antzerki-jarduera handia sortu zen, *Antzerti* aldizkaria sortu zuen Labaienek 1932an, eta Toribio Alzagak eta *Euskal Iztundea* antzerki-talde amateurrak 51 obra antzeztu zituen 1915 eta 1936 bitartean; aurrekoa baino xede dramaturgiko berritzaileagoarekin, Esteban Urkiaga «Lauaxeta» eta Manu Sotaren antzerki ibiltaria

ere zabal ibili zen. Baina, 1936ko gerra tarteko ia hamabost urteko isilaldia izan zuen, ondoren berriz indarraldian hasi arte. Zehazki, 1950eko hamarkadako antzerkigintzaz Sudupek (2010, 7. or.) dio: «Iparraldean hamarkada aberatsa izan zuen; apalago Hegoaldean. Idatzi gehiago egin zen antzeztu baino». Auzi politikoa ere aipatzen du, Bigarren Mundu Gerrak eta 1936ko gerrak beren antzerkia izan zutela, Iparraldean euskal pertsonaia historikoak aldarrikatu zirela, eta Hegoaldean 1936 baino lehenagokoak antzeztu zirela gehienbat, garaiko egoera politikotik gertuagokoak taularatzea debekatu zelako (Sudupe, 2010, 7. or.). Hala, ondorioztatzen du 1950eko antzerkigintzak Iparraldean izan zuela goraldia hamarkadaren hasieratik, baina Hegoaldeak ezin izan ziola gerraurreko mailari eutsi (Sudupe, 2010, 1239. or.).

Gil Fombellidak (2008, 2009) 1876-1935 bitarteko literaturgintzan antzerkiaren nagusitasuna gogorarazten digu (ekoizpenaren % 48,3, atzetik dituela gainerako guztiak: olerkia, narratiba, herri-literatura eta bestelakoak) eta, 1936-1975eko behetakada interpretatzean, dio kontuan hartu behar dela idazle euskaldunen kopuruak gora egin izana eta, beraz, estatistika banatuago dagoela bigarren aldi horretan; alabaina, azaltzen du, halaber, diktadura frankistak eskuarki errazago onar zezakeela poesiaren ildo intimista, jendaurrean emateko antzerkiaren aldean, gogoan izatekoa baita euskal antzerkiaren xede ideologikoa (Gil Fombellida, 2008, 342. or.):

Euskal Herrian zein euskal erbeste desberdinetan (baita emigrazioaren fenomenoan ere) garatutako euskal antzerki-jarduerak, XIX. mendearen amaieratik laurogeiko hamarkadaren erdialderaino, xede linguistiko, kultural eta politiko oso zehatzak izan ditu, besteak beste, eta modu oso nabarmenean, kulturaren eta hizkuntzaren aldarrikapena, eta azken finean, herri euskaldunaren izaera eta identitatea edo nortasuna aldarrikatzea.

Horren erakusgarri, Ariznabarretak (2009, 432. or.) azaltzen du, Ugaldez eta Labaie-nez ari dela, garaian teatroa herriaren zerbitzura jarri beharrekoa zela uste zela, eta teatroak euskara biziberritzeko indar pedagogikoa zuela, gutxi irakurtzen duen jendar-tearengana iristeko bidea zelako; horretarako, baina, euskara errazean emana behar zen iritzikoak ziren nola Labaien, hala Ugalde.

Hala, antzerkia (testuen eta ideien) sozializatorako eta zabalkunderako tresna izan da bai Euskal Herrian, bai erbestean: «Emigrazioaren eta euskal erbestearen fenomenoetan ere antzerkia, beste herri-ikuskizun batzuekin batera (besteak beste, dantza), euskal herriaren kultura eta nortasuna gorde, erabili, garatu eta aldarrikatzeko kultura-tresna nagusia izan zen» (Gil Fombellida, 2008, 337. or.).

Gil Fombellidak erakutsi legez, antzerki-jardunak leku nabarmena izan du erbestean, eta hala agertu zuten, bai Gerra Zibilaren aurreko zein ondorengo garaietako aldizkariak eta prentsak, bai albiste zein erreseinak eta erreportaien bidez (Gil Fombellida, 2008, 339. or.). Antzerki-jardunak ez zen falta izan, adibidez, Ameriketako diasporan (*Antzerki* eta *Saski Naski* izeneko taldeak aipa litezke Laurak bat zentroan). Jorratutako gaiak eta giroak euskal auziari omen egin arren, euskara abestietan baino ez zen baliatzen antzezlanetan (Gil Fombellida, 2009, 125. or.). Ageri denez, hizkuntza-hautua aldatu egiten zela jokatzeko ala irakurtzeko testuetan.

Gauzak horrela, euskal kultur ekoizpenean bi eszenatoki ditugu Torrealdairen arabera (1997, 127.-130. or.): batetik, barrukoa, ia isilpean dagoena eta, bestalde, erbestekoa, aldizkariak, inprimategiak eta argialetxeak sortu zituena baldintza oso gogorretan.

Halaber, bi alditan edo kultur ziklotan banatzen du Torrealdaik frankismoaren aldia: 1936-1955 bitartekoa eta 1956-1975 bitartekoa. Lehenengoan, gerraurreko ideia eta ereduak izan ziren nagusi eta 1950eko hamarkadan dago hausturaren abiapuntua, hain zuzen ere, Jose Antonio Agirre lehendakariak sustatuta Parisen antolatutako 1956ko *Congreso Mundial Vasco* delakoak ireki zuena, bertan azpimarratzen zelako erresistentzia Euskal Herrian antolatu beharra, eta euskalgintza eta kulturgintza estrategikoki bultzatu beharra (Torrealdaik, 1997, 130. or.).

Irujok (2012, 201.-207. or.) dakartza aipatu biltzarren gaineko xehetasunak: bi urteko prestaketa-lanen ondotik, 1956ko irailaren 24an hasita, 366 pertsonak parte hartu zuten eta 144 komunikazio aurkeztu ziren: gai politikoak, sozioekonomikoak, kulturak eta erbesteari buruzkoak landu ziren astebezez. Irujoren iritziz kongresua une egokian egin zen, ordutik aurrerakoan gizarte- eta ekonomia-eraldaketa gertatu zirelako nola munduan, hala Euskal Herrian, eta erbesteko euskal komunitatean ere belaunaldi berri bat agertu zelako, bestelako helburu politikoak zituena eta kultur taldeak sortu zituena (Irujo, 2012, 206.-207. or.). Nabarmentzekoa da Irujoren ustez kongresuko kultur atalaren garrantzia, bertan jorratu zen gai nagusia hizkuntzaren errepresioa izan zen, euskararen historian inoizko atzeraldi handiena eragiten ari zen arazo larria. Euskal Kulturaren Alde elkartearen ildotik, batzorde bat eratu beharra proposatu zen, euskaren zabalkundearen, idatzizko eta ahozko erabileran, irakaskuntzan eta normalizazioan eragingo zuena (adibidez, lan klasikoak euskarara itzulita) (Irujo, 2012, 205. or.). Izan ere, Bingen Ametzaga garaiko itzultzaileak nabarmendu bezala, hirukoitza zen itzulpenaren funtzioa orduko ikuspegiaren arabera: literatur euskararen batasunean aurreratzea, hizkuntzaren hierarkiazioa eta idazleei imitaziorako ereduak ematea (Irujo, 2009, 37. or.).

Torrealdaik, era berean, 1956an bertan Euskaltzaindiak Arantzazun egindako gerraosteko lehen batzarra ere nabarmentzen du aldaketarako haustura-puntuaren erakusgarri: «Euskararen egoeraren diagnostiko beltza egiten da hemen ere. Baina, estrategia diseinatzean, alderdi sozial eta politikoetan barik hizkuntzaren normalizazio linguistiko-kulturalean bilatzen da bidea» (Torrealdaik, 1997, 130. or.); Torrealdaik *Jakin* aldizkariaren sorrera ere nabarmentzen du, 1956an abiarazitako aldizkaria: «Pentsamendu aldizkaria da, ez literarioa, orduko gehientsuenen atzera; euskara modernizatzean Orixerekin hautsi eta eredu berriak proposatzen ditu; Europako korronteetara begira jartzen da» (Torrealdaik, 1997, 130. or.)¹.

1 Argigarri direlakoan, hemen zenbait proiektu eta ekoizpenen datak: Buenos Airesko erbestean, 1942an sortu zen Ekin argialetxea. Zarautzen 1946an sortutako Itxaropena etxeak 1952an abiarazi zuen euskarazko Kuliska sorta. Euskarazko *Euzko-Gogoa* literatura-aldizkaria 1950 eta 1959 bitartean argitaratu zen (hasierako etapan Guatemalan eta 1955etik aurrera Iparraldean). *Gernika* agerkaria 1948-1953 bitartean agertu zen. *Egan* literatura-aldizkaria 1948an abiarazi zen, eta 1953tik aurrera hasi zen euskaraz soilik argitaratzen. Testuan aipatutako *Jakin* 1956an abiatu zen, eta *Auñamendi Entziklopedia* 1958an. Auspoa argialetxea, berriz, 1961an, Agirre lehendakaria erbestean hil ondoreneko urtean. Gerraurreko belaunaldiaren balioak gordetzen zituzten *Karmel* eta *Olerti* 1950ean eta 1959an hasi ziren, hurrenez hurren.

Hala, erbestealdiari dagokion bigarren garai horretan euskal kulturgileen belaunaldi berriak egin zuen bidea (Torrealdai, 1997, 133.-136. or.), zeinaren betekizuna euskarari bestelako esparruak ematea baitzen: unibertsitatea, literatura, zientzia, tradizioa eta korronte berriak... Halaber, eredu berriak bilatu zituen belaunaldi berri hark, hala teoriarik nola praktikan, eta erakundeetatik aparteko organoak ere sortu zituen. Belaunaldi-aldaketa literaturaren esparruan ere gertatu zen, Aldekoak (2004, 150. or.) azaltzen duenez:

Los sólidos pilares morales que cimentaron el ideario nacionalista tradicional, así como su proyecto cultural del periodo de la República, *Euzkal Pizkundea*, ceden ante las propuestas de agnosticismo, ateísmo, neopaganismo, nihilismo, existencialismo y esteticismo que se extienden entre los nuevos autores de la literatura vasca. La modernidad irrumpía definitivamente. El relevo cultural, que en lo político se inclinaba hacia la izquierda, se libró en diferentes frentes: *Euzko-Gogoa*, que representa la continuidad de los presupuestos culturales del periodo anterior a la Guerra Civil, cede ante el posibilismo de *Egan* y la juventud franciscana de *Jakin*; el sistema moral del costumbrismo literario pierde fuerza ante la irrupción de personajes inmersos en una nueva realidad psicológica, filosófica y social; el caserío se repliega ante el empuje de la ciudad y un nuevo modelo de vasco urbano se abre camino: el *euskaldunberri* (vasco-hablante nuevo).

Zehazki, belaunaldi berriko autoreek hautatutako itzulgaiei dagokienez, hau dio Aldekoak (2004, 158. or.):

Así, los planteamientos culturales y lingüísticos o el humanismo clásico que defendía *Euzko-Gogoa* adolecían, sobre todo, de falta de sentido de la realidad. El clasicismo que propugnaban resultaba frío y lejano para una generación que había crecido en una cultura urbana. Frente a la ingente labor de traducción llevada a cabo por Jokín Zaitegi (Sófocles, Eurípides y Platón), Andima Ibiñagabeitia (Virgilio y Ovidio), Santi Onaindia (*La Eneida* y *La Odisea*) o Gaizka Barandiaran (*La Iliada*), la generación nueva optó por un humanismo más cercano al hombre, a su condición humana. La modernidad había realizado su propia lectura del mundo clásico como *Ulises*, de James Joyce, o *La tierra baldía*, de T. S. Eliot, por no citar *Antígona*, de Jean Anouilh. Se trata de un clasicismo que habla y siente una realidad humana que es la nuestra.

Frente a *Agustín Gurenaren aitorkizunak* (Las confesiones de San Agustín) (1956), la joven generación prefirió la lectura de Unamuno, Sartre, Camus, Bernanos, Huxley, Kafka, Ionesco, Mauriac o Brecht, por citar algunos autores que no tardaron en ser traducidos al euskera.

Ageri denez, antzerkiaren esparruan ere, garai bertsuan, 1960ko hamarkadarako, etorri zen eraldaketa (Urkizu, 2000, 2009, 2012). Teatroak erresistentzia gisa jardun zuen gerra zibilaren eta frankismoaren garaian, eta abertzaletasunaren propagandarako bide ere izan zen erbestean (2009, 354. or.). Iparraldeak, ostera, hartua zuen bere bidea, batetik, pastoralen eta komedien eskutik eta, bestalde Pierre Laffiteren eta *Herria* astekariaren eskutik; halaber, Lore Jokoetan ere izan zen teatro-lan eta bakarrizketen

lehiaketarik. Erbestean *Euzko-Gogoak* egin zuen bidea hainbat antzerki argitaratzeko (espazioaren % 19,5 hartzen du antzerkiak). Hegoaldean, Toribio Altzagaren gidaritzapeko *Euskal Iztundearen* lehen etaparen ondoren eta Sota eta Lauaxetaren zein 1932az geroztiko *Antzerti* aldizkariaren ekimenen ondotik, apurka antolatzen hasi zen berriz teatrogintza eta 1949an prestatu zuen lehenengoz Nekazarien Alkartasunak bakarriketen txapelketa bat, gerraurreko aktore María Dolores Agirrek irabazi zuena, *Aukeraren maukera, azkenean okerra* lanarekin (Urkizu, 2000, 638.-639. or.). Halaber, 1950eko hamarkada teatro-sariketen hamarkada izan zela dio Sudupek, eta hizpide duguna ez ezik, Hazparden 1951n izandako bat eta Donostian 1960an izandako beste bat ere aipatzen ditu (2010, 465. or.).

Betiere Urkizuri jarraikiz (2000), lehenago aipatu dugun Toribio Altzagaren ikasle izandako María Dolores Agirrek antolatu zuen *Euskal Izkeria eta Iztunde Ikastola* 1953an, asmo zuena euskara-eskolak ematea eta urtero antzezlan bat jokatzera. Lortu ere lortu zuen: 1950eko eta 1960ko hamarkadetan 33 obra taularatu zituen taldeak, 92 emanalditan. Talde hori hizpide hartuta, hauxe dio Urkizuk (2000, 639. or.):

Nos podemos preguntar si era un Teatro de la Derecha, utilizando las palabras de José Monleón, pues no faltaban adaptaciones de Alejandro Casona como *Txalupak jaberik ez* «La barca sin pescador». Mas no faltaban tampoco adaptaciones de obras de Molière, Gheon, Loti, Tagore, García Lorca, Lozano, Bueno Vallejo, Pio Baroja y Campión; ni tampoco creaciones de los autores tradicionales como Soroa, Alzaga, Barriola etc., o de los nuevos como Larzabal o Monzón, por lo que se puede considerar, dadas las circunstancias, un teatro de Resistencia, y como un gran éxito de supervivencia en un clima tan adverso, al par de muy positiva su labor de conservación del euskera.

Ya por los años 60 van surgiendo grupos de teatro a lo largo de todo el País, y será otro grupo donostiarra el que destacará en ese momento. Se llama Jarrai (1960-65) y supuso una ruptura con los viejos moldes nacionalistas, ya que aparte de representar a Muñoz Seca, llevaron a tablas a Tennessee Williams, Priestley, O'Neill, Ibsen y Camus, lo que supuso una lucha de generaciones y de propuestas teatrales.

Hala, esan liteke gerraurretik ere teatroa argitaratu izan zuten Labaien eta Larzabalen eskutik etorri zela antzerki berrirako bira. Hain zuzen ere, Labaienez ari dela, Urkizuk (2012, 257. or.) zehazten du kanpoko zenbait lan ekarri zituzten belaunaldi, berriekin kritikoa izan bazen ere, abangoardiako hainbat autoreren lanak itzuli izan zituela (Castelao, Dürrenmatt, Ionesco, Frisch, Brecht), eta sinbolismoaren absurdoaren zein antzerkigintza epikoaren ereduak ekarri zituela euskal mundura.

Erbestealdiaren bi epealdiei begiratuta, 1936-1955 bitartean plazaratutakoen artean aipa daitezke, adibidez, Sotak gaztelaniaz eman eta Altunak euskaraz jarritako *Buru-zagijak. Atal bateko antzerkija* (Emeterio Verdes Achirica, 1936), Labaienek emandako *Gachucha (Gure Herria)*, 1938, 106.-113. or.; «Becassine» de Leone Calvez et Henri Caouissin, adaptée a la scene basque), Ametzagak euskaratutako *Hamlet (Ekin)*, 1952), Zaitegik Mexikon emandako *Sopokel'en antzerkiak* («Pizkunde» Euskal argitaratzailea,

1946) edota Ibinagabeitiak *Euzko-Gogoan* euskaraz emandako Jacinto Benaventeren *Abere Indarra* (*La fuerza bruta*, 1908koa), 1951n agertua, eta *Gaitzesia* (*La malquerida*, 1913), 1954an agertua. 1951n agertu zen, halaber, Paul Guilsouren *Petan Mihiku: irri-egiteko ikusgarria hirur zatitan* (Imprimerie du Courrier, 1951).

1956-75 bitartean, berriz, antzerki itzuli hauek ditugu: Zaitegiren *Sofokles: Ajax, Tarakin'go emaztekiak, Piloktete*, 1957an *Euzko-Gogoan* agertua, *Piloktete* eta *Taranti'go emaztekiak* bezalaxe. Bingen Ametzagaren *Prometeo burdinetan* (*Euzko-Gogoa* 1959) edota Bedita Larrakoetxeak itzultitako Shakespeareren obra osoa, *Euzko-Gogoan Macbeth* (1957), *Lear Errege* (1958) eta *Ekatxa* (1959) eman bazi-
ren ere. Labaienek hauek eman zituen: *Gizona ta kidea, Friedrich Durrenmatt-en itzulpena* (Egan, 1963, 1-3, 154.-179. or.), *Neskatilla ezkongai, Eugene Ionesco-ren itzulpena* (Egan, 1964, 1-6, 123.-128. or.), *Su ta gar, prantsesetik antolatua. Irri antzerkitxoa bi ataletan.* (Egan, 1966, 1-6, 155.-164. or.), *Su emailleak. Max Frisch-en itzulpena* (Egan, 1966, 1-6, 165.-215. or.), *Perretxiko-jatea, Irri-komeritxoa alemanetik antolatua* (Egan, 1967, 1-6, 180.-189. or.), *Lapikoa, Plautoren itzulpena* (Olerti, 1969).

Kontuan hartu beharrekoa da gerraurreko itzulpenak, esaterako Sotak eta Lauaxetak egokitutakoak, ondo hartuak izan baziren, euskal girora eta irudietara egokituta egin zirelako izan zela hala (Urkizu, 2012, 254. or.). Izan ere, antzerkiaren esparruan itzulpenaren auziak sortua zuen eztabaidarik gerraurrean. Esaterako, Toribio Altzagak egokitutako eta taularatutako (1924an eta 1925ean taularatu zen) *Irritza* (*Ambition*, William Shakespearerena) lanak aldeko kritikak ez bezala, kontrakoak ere jasoak baitzituen: «Other critics, however, thought that the type of audience in the Basque context and the fact that the work was a translation meant it didn't merit representation and tagged it a futile and premature experiment». Bada, badirudi Altzagaren lanek ez zutela abertzaletasunaren ideologia erabat iragazi (Urkizu, 2012, 252. or.).

Antzeko eztabaidak izan ziren erbestean ere, eta horren berri ematen digu Ariznabarretak, Ugaldek (2009, 430. or.) 1955ean *Euzko Gaztedi* aldizkarian literatura dramatikoaz idatzitako testu batez ari dela: Ugaldek hizpide hartzen du Caraceseko euskal etxean *Euzko Gaztedi* egunean Txekhoven *Jostailu komikoak* jokatu izanak kritikak izan dituela, taularatze txarragatik ez ezik abertzaletasuna ospatzeko egunean idazle atzerritar bat hautatu izanagatik ere; euskal antzerki nazionalaren aldarrikapena egiten du, hurbileko gai eta arazo ezagunak jorratuko dituenaren alde, alegia, teatroaren funtzio soziala eta pedagogikoa aintzatetsita. Ikusmolde berekoa zen Labaien, Gereñuren (2009, 480. or.) hitzetan, zeina, frantses, gaztelania eta inge-
lesetik euskarara antzerkiak itzultitakoa izan arren eta egiteko horri garrantzitsutzat jo arren (besteak beste, beste herrialde batzuetako mugimendu artistikoetako korranteak gurera ekartzeko), beharrezkotzat jotzen zuen euskaraz antzerkiak sortzea (Gereñu, 2009, 480. or.).

Herri-teatroa eta teatro nazionala zuten ments aurreko teatrogileek, ageri denez, Ostera, unibertsitate-mailako euskarazko ereduak testuak sortu asmoz ari ziren,

besteak beste, *Euzko-Gogoa* aldizkarian, lehenago ere aipatuenez, jakinik ere sortzen ari ziren hizkuntza-eredua ez zela euskaldun oroentzat eskuragarria (Gandarias, 2018, 94.-95. or.). Hain zuzen ere, hizkuntza-eredua izan omen zen testuen harrera-eskasiaren eragile. Aldizkari horretan argitara emandako Ibiñaga-beitiaren, Ametzagaren, Zaitegiren, Larrakoetxearen itzulpenak hizpide hartuta Urkizuk zioen ez zutela harrera handirik izan, hizkuntza-eredua zela eta; izan ere, jatorrizkoetan itzulpenean baino errazagoak ziren kritikak ere jaso izan zituzten (Urkizu, 2012, 256. or.). Gandariasek (2018, 118.-119. or.) dio, gainera, *Euzko-Gogoa*ko estrategiek ez zutela lortu belaunaldi berriko irakurleengana iristea, nonbait, Euskal Herri idealizatuan, memoria historikoan eta nostalgikoan iltzaturik omen zegoelako agerkaria.

Sudupek (2010, 463. or.) gogorarazten digunez, 1950eko hamarkadako teatroan auzi nagusietako bat izan zen «sorkuntza ala itzulpengintza sustatu behar zen nagusiki ikuslea juje nagusi izaki» eta, esaterako, Jean Etxepare Landerretxeren (Jean Etxepare Gaztea) hitzak dakartza horren erakusgarri (Sudupe, 2010, 462. or.). Nolabait, azken horren iritiz bertoko ikusleari bertoko gaiak baina bertokoari trufa egin gabeko antzerkiak behar zuen garaiko antzerkigile zenbaiten ustean eta horrek, noski, euskal teatro itzuliaren bilakabidean izango zuen eraginik.

3. ITZULPEN-SARIKETAK ETA -SARIAK EUSKAL LITERATURA ITZULIAREN BARNE-EREMUAN

Euskal itzulpengintzaren erakundetzearen aurretik ere izan ziren itzulpen sarituak eta itzulpen-sariketak euskal literaturaren esparruan, puntualak eta sistematikotasunik gabeak izan baziren ere. Hainbatean, itzulpen saritu asko sormen-lanen parean saritu ziren, edo literatura-sariketa orokorretan (Ibarluzea, 2017, 115.-117. or.). Bada, orain arte bildutako sariketen erlazioa gogorarazi nahi dugu (Ibarluzea, 2017 lanean egin bezala)², zerrendari begiratuta literatura itzuliaren barne-eremuaren bilakaeraren zantzuak agerrarazi daitezkeen aldetik eta, halaber, aztergai den sariketa bestelako sariketen ildoan koka daitezkeen aldetik.

1873ko Lore Jokoetan Gratien Ademak itzultitako «Bildotxa eta otsoa» alegia saritu zuten, eta 1879an egokitzapenak ere saritu ziren. Horren berri dakar Urkizuk Auñamendi Entziklopediako «Antton Abadia eta Lore Jokoak» sarreran (Urkizu, d.g.):

Felipe Arrese Beitia izan zen lehen sariaren irabazlea, *Ama Euskeriari Azken Agurrak* poemarekin, eta bigarrena Ramon Artolari eman zitzaion *Altabizkarko Kantua* moldatzeagatik. Prosa lanen artean ohorezko aipamena *Lamiaren kantua*-k jaso zuen *Iputza*-k, hots, Klaudio Otaegik. Leienda hau Antonio Truebak idatzitako beste baten moldaketa zen, eta *Revista Euskara*-n argitaratu zen.

2 Izango dira, beharbada, gehiago ere; hauek dira, nolana ere den, orain arte bildu ditugunak.

1914an *Euskalerrriaren Alde* izeneko erakundeak antolatutako itzulpen-topaketa edo -sariketa baten berri dugu Onaindiaren (1974, 39. or.) eskutik, Jose Manuel Etxeitaz ari delarik hauxe baitio: «1914'an ere, «E. Alde» berak eratu zuen ipui-itzulketak batzaldian berak irabazi zitun lenengo bi sariak, bata Trueba'ren ipui «Jainkogan siñisten dot» itzulpenagatik eta bestea «Urikoa» komediagatik».

1927an Euskal Esnaleak antolatutako sari baten berri ere badugu, eta bestelako sailen artean: «Edozein izkuntzaz eta gaitz egindako idaztietatik euskeratutako esakera polit eta gogopen oroigarriak» zeritzone atala egon zen (*Euskal Esnalea*, 1927: otsaila & ekaina, Atzoko Prentsa digitala).

1928an Euskaltzaleak elkarteak Kixotearen IX. kapitulua itzultzeko sariketa antolatu zuen; Orixe izan zen irabazlea eta haren testua, Lizardirena, Irigarayrena eta Anabitarterena *RIEV* aldizkarian argitaratu ziren 1928an eta 1929an (Urkizu, 2004, 207. or.).

Euskaltzaleak elkarteak antolatu zuen, halaber, 1948an Buenos Airesen beste itzulpen-sariketa bat, López-Mendizabalen eskutik, Bingen Ametzagaren bio-bibliografiako Susa argitaletzeko datuen argitan (Susa argitaletzeko liburuak sarean).

1954an Euskaltzaindiak antolatutako sariketa batean itzulpenak eta sormen-lanak saritu ziren, *onlineko* Armiarma proiektuaren baitan gordetako *Euzko-Gogoa* aldizkariaren aleetako batean (1954, 11.-12. or. in Ibinagabeitia proiektua) ikus daitekeenez:

Euskaltzaindiaren Sariketa: Lenengo saria, 1.000 laurleko, Juan de Aldamin iaunaren «Joanak Joan» eleberrinari. Bigarren; Berasaluze'tar Sabin Aitaren O.F.M., «Bide Izkurtua»ri (Hugo Wast'engandik itzulita). Irugarrena; Erkiaga'tar Eusebi'ren «Aspaldiko Maigret» itzulpenari («La Première enquête de Maigret»). Loidi Bizkarrondo'tar J. iaunak aipatze berezia ukan du «Amabost Egun Urgainen» irakurgaiagatik.

Horrez gain, Pariseko Euskal Etxeak 1958an antzerki-lanen itzulpen-sariketa bat antolatu zuen Euskaltzaleen Biltzarraren eskutik. Horixe bera dugu aztergai hemen. Baina, arestian esan bezala, aipatu sariketok puntualak izan ziren, eta beranduago, 1980ko hamarkadatik aurrera, hasi ziren itzulpen-sariketak espezifikoki bihurtzen, sistematizatzen eta jarraikortasunez egiten.

4. PARISEKO 1958KO SARIKETAREN BERRI GAUR ARTE

Juan Jose Garmendia editore zela, 1974an argitaratu zen Kardaberaz bildumaren 7. zenbakia. Bedita Larrakoetxeak itzulitako Shakespeareren zortzi komedia biltzen ditu *W. Shakespeare'ren antzerki guzti-guztiak - 37 Euskeraz* izenburupean. Aita Onaindiak egin zion hitzaurrea, Larrean, 1973ko maiatzean: Shakespearez ari da lehenbiziko atalean, eta «Itzultzailea» du izenburua bigarren atalak. Azken horretan, Larrakoetxearen biografiaren eta langintzaren berri ematean, haren itzulpenei buruzko jakingarriak dakartza; Larrakoetxeak jasotako sariak ere aipatzen ditu.

Hitzaurreak jasotzen duenez, 1954an Ingalaterratik itzuli zen Larrakoetxea, eta orduan hasi zen Shakespeareren lanak itzultzen eta hasi eta hiru urtera Parisen iragarritako norgehiagoka batera *Binixa'ko Saleroslea* bidali zuela adierazten da, bai eta, itzultzaileak saririk jasoko ez zuela uste bazuen ere (mugaz bestaldekoentzako sariaketa izango zelakoan), lehen saria jaso zuela ere (Onaindia, 1974, 10.-11. or.).

Susa argialetxeak digitalizatutako liburutegian, Jon Miranderen gutunerian topatutakoa da sariari buruzko bigarren aipamena. Jon Mirandek Andima Ibiñagabeitiari bidalitako gutunean (1958-V-9), hau dio: *Euzko-Gogoari* eman diola begiratu bat, eta gustuko dituela Zaitegiren eta Larrakoetxearen antzerki itzulpenak. Zehazki:

Macbeth ori oso ona da ene ustez; Eskualzaleen Biltzarrak (Parisekoak) itzulpen-zeingeiagoka bat antolatu baitzuen, Larrakoetxeak The Merchant of Venice-ren itzulpena igorri digu. Ni bost epaileetarik bat nintzan (besteak Ibarrondo, Leizaola, Aita Chabagno ta Gilsou jaun apaiza ziran) ta nai nion Larrakoetxeari lenengo saria eman; azkenegotz, bi leen sari eman ditugu, ex aequo; bata Larrakoetxearentzat, bestea, ezagutzen ez dudan lapurtar gazte batentzat, Hochwalder'en Zeruan bezela lurrean ere itzuli baitzuen.

Onaindiak ere sariaren berri ematen du Etor argialetxean 1977an publikatutako *Euskal Literatura V* liburukian (Literaturaren zubitegia, d.g.), Larrakoetxeari eskainitako atalean:

Beste bat, «Binixa'ko Saleroslea» deritzaiena, Paris'ko norgeiagoketa baten sariztatu zioten. «Mirende Aipharsorho'tar Yon zana izan zan maiko beste batzuen artean, eta ak Ibinagabeitia'tar Andima zanari idatzi eutsanez, ain bikain eginda ei egoan euskeratze-lana-ta, lenengo saria berari emon-bearrean aurkitu ei ziran maikoak». Onek, gero ta gogotsuago lanari ekiteko adorea eman zion, noski. Paris'en iragarri zan nor-geiagoketa atzerrietako izkuntzetatik euskeraz jarritako lanentzako zenuen.

Herria aldizkariko 413. zenbakiak, 1958ko uztailaren 3koak, «Parisetik» atalean, 4. orrialdean, hau jasotzen du: «Eskualzaleen-Biltzarrak egin du beraz bere Biltzar Nagusia. Zoin gehiagoka bat muntatu du iragan urtean, teatrolarrietan. Hamar bat pieza ukan ditu, Parisetik, Euskal Herritik, Ameriketatik» (*Herria*, 1958-07-03, Koldo Mitxelena bibliotekako hemeroteka, *online*).

Pako Suduperen *Tradizioa eta modernitatea 50eko hamarkadan (euskal kulturaren biziberritze gatazkatsua)* izeneko 2010eko doktore-tesian ageri da sariketaren gaineko aipamenik osatuena, zehazki, antzerkiari eskainitako kapituluak «1. Iparraldean» atalean. «1.1.3. Jean Etcheperaren diagnostikoa» azpiatalean 1958ko ekaineko *Elgar* aldizkariko berri batetik ateratako informazioa dakar, gero ere agertuko duguna (Sudupe, 2010, 461. or.): sariketara 8 lan aurkeztu zirela azaltzen du, zerrendatu egiten ditu lanak eta epaimahaiaren berri ematen du. Halaber, epaimahaiaren erabakien gaineko aipamenean bat ere egiten du. Kapitulu berean, «1.1.4. Hamarkada amaierako egoera» azpiatalean, sariketak aipatzen ditu, eta 1958ko Pariseko hau ere zerrendatzen du (2010,

465. or.). Aurrerago, «2.4.5. Antzerki itzulpenak» atalean berriz dakar Sudupek hizpidera sariketa, itzulpenen eta egokitzapenen eta hizkuntza-konbinazioen arteko aldeari buruzko auzia azaleratuta (2010, 581. or.):

Itzulpenak eta egokitzapenak aski egin ziren: gogora bitez Eskualdun Gazteria-k 1956an antolatutako lehiaketara eta 1958an Pariseko Eskualzaleen Biltzarra-k antolatura aurkeztutako lanak. Itzulpena juzgatzea berez neke da eta nekeago antzerki itzulpena, sarri askotan itzulpen baino gehiago egokitzapena dena, batzuk ingelese-tik, beste batzuk greko edo latinetik eta beste batzuk frantsesetik edo gaztelaniatik eginak.

Horiez landara, Txomin Peillenekin izandako elkarrizketa batean jakin genuen Miranderen gutunean aipatutako Hochwalderen *Zeruan bezela lurrean ere* testua Pochelurena zela. Antza, Peillen bera Algeriatik bueltan etorri zenean, «1960an edo» eman omen zion Ibarrodok Peilleni testua zuzentzera. Ibarrodo Pariseko sariketa hartan epaimahaian izan zen. Pariseko sariketa hura sarri egin ote zen galdetu genion Peilleni; bada, haren hitzetan, Eskualzaleen Biltzarrak beste sari batzuk ere ba omen zituen eta itzulpenari lotutako hura egiteari laster utzi zitzaion (komunikazio pertsonala, 2014-11-9).

Aipamen horien guztien hariari tiraka eta euskal itzulpengintzaren historiari aletxo bat gehiago eman nahian, Pariseko Eskual Etxeko agirietan ezer aurkitu ez eta *Elgar* aldizkaria aletzeak ekarri zizkigun sariari buruzko datu berriak, bai eta haren bilakabidea marrazteko oinarrizko informazioa eman ere.

5. PARISEKO ESKUAL ETXEKO *ELGAR* ALDIZKARIAN 1958KO SARIKETAZ BILDUA

Pariseko Eskual Etxeko (PEE) berri-papera da *Elgar*³ gaur egun oraindik ere kideei postaz bidaltzen zaiena. 1932an sortu zuen Paul Legarralde. Dagokigun sasoian, hilero argitaratzen zen (salbuespenak albuespen), eta Pariseko euskal komunitatearen eta jardueren berri emateaz gainera, euskal gaiak lantzen zituen, Euskal Herriko eta diasporako berri emateaz gainera. Pariseko Eskualzaleen Biltzarrak argitaratzen zuen (Pariseko Eskual Etxea, d.g.). Elkarte hori PEEren baitan bildutako elkarteetako bat zen orduan (Camus, 2003).

1957ko urriko *Elgar* aldizkarian (90. zk.), «Tres important!!!» izenburupean, ematen da itzulpen-sariketa handiaren berri: «L'E.-B. de Paris organise un grand concours de traduction d'une piece française ou étrangère en langue basque». Alegia: Eskualzaleen-Biltzarrak atzerriko teatro-lan bat, edo frantsesa, euskarara itzultzeko lehiaketa bat antolatu zuen. Banatzeko sarien diru-kopurua zehazten da (15.000 franko lehen

3 Lan honetan aipatzen diren *Elgar* guztiak Euskaltzaindiaren Azkue bibliotekan (<https://www.euskaltzaindia.eus/azkue-biblioteca-eta-artxiboa>) eta Baionako Euskal Museoaren liburutegian (http://pmb.musee-basque.fr/opac_css/) kontsultatu dira.

sariarentzat, 10.000 franko bigarrenarentzat eta 5.000 hirugarrenarentzat); testuak nola, nora eta noizko bidali behar diren argitzen da (inprimatuta edo makinaz jota, abenduaren 1erako, Pariseko 8. arrondizamenduko Rochers kaleko 53. zenbakira); eta, azkenik, lan irabazleak Parisen jokatu egingo direla zehazten da: «La piece será crée a Paris» (*Elgar*, 90, 2. or.).

1958ko otsailean (*Elgar*, 96) itzulpen-sariketarako izandako arrakastaren berri ematen du «L.» sinatzen duen lumak (albisteak «Le formidable succès du concurs de la Traduction Basque» izenburua du); hiru edo lau lan aurreikusi izanagatik, gehiago jaso dituzte. Zer obra jaso diren zehazten da, bai eta nondik jaso diren ere (Euskal Herriatik eta Ameriketatik heldu dira). Horrez gainera, itzultzaileei eskerrak ematen zaizkie, euskarari dioten maitasunagatik. Aipatu artikuluan epaimahaia lanak aztertzen ari dela jakinarazten dute (*Elgar*, 96, 1. or.):

Le 1^{er} janvier nous avons arrêté les envois. Nous comptons sur 3 ou 4 oeuvres. Voyez ci-dessous le resultat. Nous avons reçu:

«Gachucha», traduction de «Marius» et «Fanny» de Marcel Pagnol.

«Binixako Saleroslea», traduction du «Marchand de Venise», de Shakespeare.

«Hala Bizi», traduction de «Qui me paiera», de Gabriel d'Hervillez.

«Izar buztan luzea», traduction de la «Cometa», de Sandro Casaric.

«Konjoratia», traduction de «l'Ensorcelée», de Charles Galtier.

«Etcheko Ernaia», inédit.

«Zeruan bezala lurlean ere», traduction de «Sur la terre comme au ciel», de Fritz Hochwalder.

«Petan-Zikoitz», traduction de «l'Avare», de Moliere.

Ainsi donc, 8 Basques d'Amérique et des Sept Provinces on fait l'effort, pour risquer un prix, hélas, modeste, de traduire des oeuvres importantes. Ah! Non, tout n'est pas encore perdu!

Le jury examine les oeuvres sous le couvert du plus strict anonymat. Evidemment, il faut quelques semaines avant de proclamer les résultats.

Remercions d'abord, bihotz bihotzetik, les traducteurs, de leur amour de l'Eskuara.

Artikuluaren bukaeran, dei egiten zaie sasoiko aldizkariari (*Herria*, *Gure Herria*, *Egan*, *Euzko-Gogoa*, *Euzko Deya* aipatzen dira), honen berri izan eta jasotako lanak argitara eman ditzaten (*Elgar*, 96, 1. or.).

1958ko maiatzean (*Elgar*, 97, 2. or.), «À l'Eskualzaleen Biltzarra» atalean, sariketako epaimahaia noiz bilduko den aipatzen da; izan ere, atal horretan jasotzen da elkartearen jardunaren berri (taldekideen ezkontzak, ekitaldiak, bilerak...). Bada, puntuetako bat itzulpen-sariketari dagokio: «Le jury du Concours de la Traduction Basque se réunira dans les premiers jours du mois de mai. Ce jury est composé de: M. le président Pierre Ibarrondo. M. le R.P. Chabagno, membre correspondant de l'Académie Basque.

M. l'abbé Guilsou. M. de Leizaola et M. Jon Mirande» (*Elgar*, 97, 2. or.). Horra hor epaimahaikideen izen-abizenak; bestalde, epaimahaiaren bilera-datatz ere badakigu zerbait gehiago: maiatzean bildu zen, hasieran iragarri baino beranduago (epaimahaia abenduan bilduko zela diote hasierako iragarpenek).

1958ko ekainean eman zen argitara irabazleen berri (*Elgar*, 89, 1. or.):

lers Prix ex-aequo: 15.000 Frs chacun Bedita Larrakoetxea, de Salta (République Argentine); Traduction du «Marchand de Venise» de Shakespeare; et M. Julien Pochelu, de Paris; Traduction de «Sur la terre comme au ciel» de Fritz Hochwalder. 3e Prix, 5.000 Frs: Mlle Marie-Jeanne Minaberry d'Ustaritz; Traduction de l'«Enscelée», de Charles Galtier.

Zenbaki bereko 2. orrialdean sariketari buruzko artikulua luzea, orrialde betekoa ia, sinatzen du Pierre Ibarrondok. Emaitez ari da hasieran, sariketak izandako ustekabeko arrakastaz: «Pour la première année où ce concurs a été institué par Eskualzaleen Biltzarra (Section de Paris), huit oeuvres, c'est un succès notable et dont il y a lieu de se réjouir. Parmi les compétiteurs, on notait un Basque habitant l'Argentine et trois femmes –et c'est très bien ainsi!» (*Elgar*, 98, 2. or.). Lehenbiziko urtea izateko 8 lan jaso izana poztekoa dela dio, eta hiru emakumek parte hartu izana ere nabarmentzen du.

Jasotako lanen izaeraz ari da gero: sariketaren arauetan itzulpenak eskatzen baziren ere, sorkuntza-lan bat ere jaso dutela azaltzen du. Ironiaz, sorkuntza-lanak eskatuz gero itzulpen-lanik ez bidaltzeko diotso emakume-egileari, eta, edonola ere, ez etsitzeko, gerora ere izango duela aukera sorkuntza-lanak aurkezteko (*Elgar*, 98, 2. or.). Jarraian, beste hautagai batzuen lanaz ari da: egokitzapenak egin omen dituzte, ez itzulpenak (egokitzapenak interesa badu ere, ez zen sariketa haren helburua; edonola ere, badirudi sariketaren beste edizio batzuetan izango dutela egokitzapenak beren tartea) (*Elgar*, 98, 2. or.). Azkenik, arauak bete dituzten lanak ditu hizpide (bik bete dituzte itu-ituan, eta haienak ziren lan onenak) (*Elgar*, 98, 2. or.): epaimahaiak ez omen du eztabaida handirako tarterik izan lehenbiziko bi testuei dagokienez: zein bere generoan oso ezberdinak izanagatik, paretsu saritzeko merezimendua dute. Hirugarren sariak sortu omen ditu epaimahaiaren arteko eztabaida eta ikuspuntu askotarikoen joan-etorria.

Ohar batean Ibarrondok gogorarazten du nork osatu zuen epaimahaia: «le R.P. Chabagno, membre correspondant de l'Académie basque, M.J.-M de Leizaola, l'abbé Guilsou, le poète Jon Mirande et votre serviteur» (*Elgar*, 98, 2. or.).

Hiru sarituen eta euren lanen berri ematen du Ibarrondok hurrena (*Elgar*, 98, 2. or.): itzulitako lanen eta euskarazko izenburuen zerrenda egiten du; jarraian, lan bakoitzari buruzko iruzkina dakar: Larrakoetxeak itzulitako lanaz dio pieza zail batetik abiatuta egindako itzulpen integrala dela, bizkaieraz idatzitakoa. Azaltzen du Shakespeareren itzulpenaz gain, lanaren analisisa ere badakarrela lehenago, bai eta autoreari eta testuaren zailtasunei buruzko oharra ere. Dioenez, interes eskolarra du itzulpenak, eta interesgarria dela oso ikasleen eskutan jar daitekeelako. Jatorrizkoari fidela izanagatik, euskararen espiritura bikainki egokituta dagoela dio. Epaimahaiak

(egileen izenak gorderik egonagatik) ondorioztatu zuen itzultzailea fraidea izan zitekeela, zein ordenatakoa zen aurreikusi ezin izan bazuten ere. Ibarrondok ez deritzo lan honi epe laburrean jendaurrean antzezteko modukoa, baina, lanak merezi du sari-tua izatea eta, hala dagokionez, gorazarre egin diote itzultzaileari (*Elgar*, 98, 2. or.).

Ex aequo emandako bigarren lehen sariaz (Pocheluri emandakoaz), ostera, Ibarrondok dio oso erakargarria dela, bai gaiagatik, bai itzulpenaren zailtasunei aurre egiteko moduagatik. Bere ustez, aurkezpen txo bat beharko du jendaurrean jokatu aurretik, azaltzeko nolatan aurkitu zituzten espainiarrek Ameriketako lurrak eta zer-nola ibili ziren Jesuitak alor sozial eta humanitarioan. Alderdi historikoari interesgarri deritzo Ibarrondok eta gorazarre egiten dio itzultzaileari, jakinaraziz ezagutzen zuela lehenago ere itzultzaile gaztea, eta joan zen urtean aurkezle-lanak ere egin zituela Euskal Etxean *Petan Mihiku* antzezlana jokatu zelarik (*Elgar*, 98, 2. or.).

Lehenengo bi sarietaz aritu ostean, hirugarren sariaz mintzo da Ibarrondo (Marie-Jeanne Minaberryren *Ensorcelée/Konjoratia* lanaz). Dioenez, ez da zehazki itzulpena, baina, komedia irriagarria dela-eta (merkatu egun batean gertatutako gorabeherak dira), publikoari gusta dakiokela. Izan ere, halaxe gertatu zen H. Monnier-en «L'enterrement» lanarekin («Antigone» antzeztu aurretik eman zuten). Hortaz, 1. sarietako bat jaso duen «Zeruan bezala lurrean ere» lanaren telonero egiteko interesgarria dela irizten dio Ibarrondok (*Elgar*, 98, 2. or.).

Itzulpenari buruzko gogoeta dator gero, epaimahaiaren irizpideak gogoan; hain zuzen ere, neologismoez eta jatorrizko lanetako pertsona-izenak eta lokalizazioak gorde beharraz dihardu Ibarrondok, zaila dela neologismoei iskin egitea, neurri eta aukera kontua da, ordea, oreka. Edonola ere, frantsestutako eta hispanizatutako esaldiak ezin dira «defendatu». Halaber, dio ez dela ontzat jo autoreek hautatutako izenak eta lokalizazioak aldatzea (*Elgar*, 98, 2. or.).

Saritutako testu itzuliei egin beharreko zuzenketek ari da ondoren (*Elgar*, 98, 2. or.): hau ez dela Goncourt saria (hizkuntza bateratu eta sendoa darabilte sariketa horretan), eta euskararen egoera dela-eta (ez dago oraindik normalizaturik), saritutako lanek zuzenketak beharko dituztela jakinarazten da. Autoreei eskatuko zaie zenbait zuzenketa egiteko, eta horrek lanak hobetzea ekarriko du, nahiz eta beste zirkuitu honek atzeratu egingo duen lanak prest egotea.

Aurrerantzeko sariketa-formatua aldatzeaz ere bada aipamenik artikuluan (*Elgar*, 98, 2. or.). 1959rako bi ataletan banatutako sariketa aurreikusten da: batetik, itzulpenak aurkeztu ahal izango dira (baina, epaimahaiak hautatuko du itzulgaia; izan ere, talentu ezberdineko autoreen itzulpenak juzgatzeak zailtasunak dakartza). Bestetik, egokitzapenak lehiatuko dira; egokitzapenatarako obrak parte-hartzaileek hautatuko dituzte, eta horrek ekarriko du euskaraz jokatzeko moduko lanen aukera zabaltzea. 1960ko sariketarako ere bi atal izango ditu: itzulpenak eta sorkuntza-lanak (euskaldunei egotzi izan baitzaie sortzaileak ez izatea). Ibarrondok ohar bat egiten du Mirande epaimahaikidearen ideia bati buruz: teatroa ez omen da jorra daitekeen genero bakarra. Ibarrondok dio, baina, nonbaitetik hasi beharra dagoela.

Azkenik, etorkizuneko parte-hartzaileei ohar egiten zaie, lanen autore-eskubideak zertan diren kontuan har dezaten eta dagozkien aitortzak egin ditzaten (*Elgar*, 98, 2. or.):

Attention toutefois, amis concurrents à la question des droits d'auteur – qui, au fond, est une question de nécessaire probité ou courtoisie: une pièce de M. Marcel Pagnol, par exemple, n'appartient pas à tel ou tel Basque, mais à M. Pagnol seul. On ne saurait l'utiliser sans autorisation. Je crois même savoir que les emprunts « entre Basques » sont à juste titre considérés d'une façon aussi suspecte, puisqu' une récente représentation à Euskual Etchea de la comédie « Les cascarrottes au Commissariat » aurait suscité des protestations de la part des auteurs hendayais... Au surplus, étant donné que l'exploitation que nous voulons faire d'une pièce moderne ne peut affecter un aspect bien commercial, il est douteux que la permission demandé à l'auteur soit refusée. Il resterait la seule question de la fidélité à l'oeuvre original, qui me paraît d'ailleurs fort importante, et qui commence par le rappel du nom de l'auteur et le respect des personnages, situations et nuances voulus par le créateur.

Artikuluaren azken aldean, albo batera lagatako hautagaiek datozen edizioetan parte hartzeko aukera izango dutela zehazten da, eta hargatik ez dela ematen artikuluan lan horiei buruzko zehaztapen gehiagorik. Gainera, datozen urteetako edizioetan luze-laburrez eta euskara aldaerez kontuan hartzeko zenbait ohar egiten dira (*Elgar*, 98, 2. or.):

Bien sûr, les pièces courtes son admises, mais il sera naturel qu'à égalité il soit préféré une oeuvre de longueur normale. Enfin, Aita Chabagno vous dira avec juste raison qu'à des termes propres à une région doivent être préférés, toutes les fois que c'est possible, des vocables ou des tournures familières à toutes les régions ou à plusieurs d'entre elles.

Azkenik, artikulugileak testuaren luzera justifikatzen du: artikulua luzea da, baina etorkizuneko sariketatarako oinarriak ezartzeko oharrak egin nahia da horren arrazoia. Bestalde, lehiaketa arrakastatsua izan dela ondorioztatzen du eta aurrerantzean bide beretik jarraitu behar dela zehazten du, baina hartzaileengan jartzen du fokua: balizko autoreengan bada euskal kultura sustatzeko erantzukizunik, baina baita hartzaileengan ere; izan ere, aberasgarri eta interesgarri den oro asimilatzeke gai izan behar du (*Elgar*, 98, 2. or.).

Hurrengo *Elgar* aldizkarietan ere ageri da sariketaren daturik. 99. zenbakian, 1958ko uztailekoan, 1. orrialdean Legarraldekin sinatutako «Ce mois-ci» atalean sariketa egin izana zerrendatzen da jardueren artean, bai eta arrakastatsutzat jotzen ere. Zenbaki bereko 3. orrialdean «Les concours littéraires de Euskualzaleen Biltzarra» izenburupean (ez da sinaturik ageri, baina Ibarrondok idatzia dela ondorioztatu dugu, bertan egiten den bere lehenagoko artikuluen aipamena dela eta), 1958ko sariketaren berri ematen da, eta 1959rako eta 1960rako asmoak aurreratzen. Pocheluren itzulpen sarituko azken esaldia eman eta nola itzuliko ote lukeen irakurleak, horixe galdetzen du. Segidan, Pocheluk honela eman zuela adierazten da: «Zendako ba beti, gizonak nahi du mundua

beretu arimaren galtzeko hirriskuan!» (*Elgar*, 99, 3. or.). Artikulugileak itzultzailearen lana goratzen du, baina baita zuzenketa bat proposatzen ere (epaimahaikideen artean izandako Chabagnoren proposamenak ekarrita), eta, bide horretan, sariketako epaimahaiak izandako lanaren zer-nolakoak plazaratzen ditu (*Elgar*, 99, 3. or.):

Ceci donne une idée de la facilité du lauréat, mais n'as pas satisfait pleinement le jury qui souhaitait un respect plus scrupuleux du texte, lequel au surplus –l'érudit et très dévoué père Chabagno s'en porte garant – est une citation de l'Evangile (Matthieu, 24-20). On proposera donc à Pochelu la traduction ci-après: «Zer irabazi duke gizonak mundu guziak jabeturik ere, baldin eta bere arima galtzen badu!»

Voilà un exemple de la façon dont le jury a envisagé les corrections ou les améliorations annoncées dans mon dernier article. Son travail est déjà avancé.

Ibarrondok 98. zenbakiko artikulu luzean aipatzen zituen zuzenketak, hortaz, bidean zirela dirudi. Jarraian, hurrengo urteetarako aurreikusitako sariketen berri dakar: 1959an itzulpenak eta egokitzapenak lehiatuko direla dio. Itzulpena ez du itzultzaileak hautatuko, epaimahaiak hautatuko du testua. Denboraz jakinaraziko zaie hautagaiei testuaren berri, ezen 1959ko irailaren 30era arteko tartea egongo da itzulpenak bidaltzeko. Bestalde, egokitzapenen atalean, egokitzzaileek testuak hautatzeko eta aldaketa batzuk egiteko askatasuna izango omen dute (neurrian egin beharko dela dio, edonola ere). Bidalketarako zehaztasunak (helbidea, ale-kopuruak, itzultzaile/egokitzzaileen izenak aparteko dokumentuan helarazi beharra...) zehazten dira gero. Azkenik, 1960an sormen-lanak sarituko direla aurreratzen du artikulugileak, eta esperantza ere ageri du: sari honek Mistral, Eugenio d'Ors, Molière, Courteline, Pagnol, Montherland edo Hochwalder euskaldun bat agerraraziko ote duen. Idazleak lanean jartzeko deia egiten du (*Elgar*, 99, 3. or.).

Elgar aldizkariaren 101. zenbakian (1958ko azaroa) Eskualzaleen Biltzarraren jardueren berri ematen den atalean zehazten denez, zuzendaritza-batzordeak egindako bileran landu zen, besteak beste, itzulpen- eta egokitzapen-sariketaren gaia. Bada, 1959ko urtarrileko 103. zenbakian, 1959ko sariketaren oinarriak, epemugak... plazaratzen dira (3. or.). Itzulpenaren atalerako honako bi testu hauen artean hautatu behar dute lehiakideek: Henry de Montherlant *Le Maître de Santiago* eta Jules Romainsen *Knock*. Itzulpenaren ataleko hautagaiek ez dute egokitzapenik egin behar (horretarako egokitzapenen atala dago), itzuli baizik. Euskara onean baina ahalik eta zehatzenen egin behar dela zehazten dute oinarriek. Sarien zenbatekoa ez omen dago oraindik finkaturik, baina gutxienekoa izango da 15.000 franko lehenbiziko sariarentzat, 10.000 bigarrenarentzat eta 5.000 hirugarrenarentzat sariketaren atal bakoitzean (*Elgar*, 103, 3. or.). Zenbaki bereko 5. orrialdean («Au sujet du concours d'Adaptation et de Traduction Basque», Sinadura: E. B.), Eskualzaleen Biltzarrak dei egiten die Pariseko gainerako elkarteei edo irakurleei mezenas-lanak egin ditzaten (*Elgar*, 103, 5. or.):

MM. Ibarrondo, président de l'E.B., R.P. Chabagno, membre correspondant de l'Académie Basque, l'écrivain basque Jon Mirande, M. de Leizaola, le basquisant bien

connu, et Ferdinand Hirigoyen, ancien maire de Biarritz, se sont réunis pour mettre sur pied le concours 1959 dont on a lu les indications d'autre part.

L'E.B. fait là un très gros effort. Mais il est impensable que les autres entités basques ne s'intéressent pas à cet événement majeur.

En d'autres termes : l'E.B. cherche un mécène pour doter le concours et fait appel aux lecteurs « d'Elgar ».

Est ce que l'Euskalduna n'aurait pas un geste pour la culture basque ?

Et Eskual-Etchea ?

Et, peut-être, nos parlementaires, si pour eux la culture basque veut exprimer quelque chose.

Alors, nous attendons...

106. zenbakian (1959ko apirila) sariketaren gaia ageri da Eskualzaleen Biltzarraren komitearen bilera-gaien artean. Ondoren, maiatzaren 19an bildu zen berriz zuzendaritza, ekaineko 108. zenbakian zehazten denez, kontu garrantzitsuei buruz hitz egiteko. Uztailera zuzendaritzaren aldaketaren berri ematen da. Badirudi zenbait kontutan behera datorrela Eskualzaleen Biltzarra eta zuzendaritza-aldaketak eta diru-kontuek eragin egin diotela elkartearen jardunari: elkarteak antolatutako hitzaldien kopurua txikitu behar izan dutela aipatzen dute 110. zenbakian (1959ko urria) eta 112.ean sariketa hurrengo urtera atzeratu behar dutela (*Elgar*, 112, 2. or.). Elkartearen egoera kritikoa agerikoa da: 1960ko ekaineko zenbakian jende bila ari dira (*Elgar*, 118).

Ibarrondo 1960ko urriko *Elgarean* oraindik ere sariketa egiteko ustez ari da, bai eta aurreko urteko testuak jokatu diren esperantzaz (*Elgar*, 120, 2. or.): «Chabagno aitarekin, bethi gure lanetan artzeko prest beita, burutagu dugu frantsesetik eskuararat itzultzeko lehen sariketa; eta esperancha dut heldu den urthian, bihotzez nahi balinbadute denek, “Zeruan bezala lurrian ere” eta “Konjorata” ikhusi ahalko dutela Pariseko Eskualdunek». Urte bereko azaroko zenbakian, *Elgar* aldizkariko Eskualzaleen Biltzarraren ataltxoan (121, 2. or.) elkarteko zuzendaritzak sariketa antolatzeke ustea agertzen du hurrengo zenbakietan.

Baina, badirudi aita Chabagno Parisetik abiatzeak (1961eko martxoko 125. zenbakian artikulua batean ematen da Parisetik Alduderako bidea harturik dagoela) eragina izango zuela aztergai dugun sariaren etorkizunean, eta, nahiz eta hura abiatu zenean «Zeruan bezala lurrean ere» antzezlanak jokatzeko asmoa bazegoen elkartearen egitasmoetan (*Elgar*, 125, 3. or.), aurrerantzeko *Elgaretan* ez dugu berririk aurkitu, eta Eskualzaleen Biltzarraren ataletan elkarteaz ematen diren nondik norakoetan eta elkartearen programetan, esaterako 1962-1963 urteetarako egitasmoen artean (*Elgar*, 139, 3), ez da itzulpen-sariketaren gaineko aipamenik agertuko. Elkartearen jardueretan hileroko hitzaldiak antolatzeke asmoa baino ez da agertzen.

6. PARISEKO 1958KO TEATRO-TESTUEN ITZULPEN-SARIKETA EZTABAIDAGAI: EGITUREZ ETA BILAKABIDEAZ

Aztergai den itzulpen-sariketaren denbora-testuingurua gerra zibilak eta frankismoak eragindako erbestealdiaren laugarren exilio-uneari dagokio, 1939tik aurrera-koari edo, bestela esanik, frankismoaren garaikoari (González-Allende, 2016b, 16. or.). Era berean, euskal exilioko abertzaleen esparruan kokatzekoa da, boluntarismoan oinarritutako salbuespeneko euskal kulturaren esparruan (González-Allende, 2016a, 67. or.). Halere, sariketa honek exilioko abertzaleetatik kanpoko eraginik ere izan zuen. Izan ere, Parisen zegoen erbesteko euskal gobernu, bai eta arrazoi politikoak tarteko erbesteratuak ere; baina, Parisen zeuden, halaber, frankismoak eragiten ez zien euskal lurraldeetako emigratu ekonomikoak, eta gogoratu behar da Pariseko Eskual Etxearen inguruan frantses errepublikazaleak ere bazirela, sozialistak batzuk, besteak beste beti ez zetozenak bat erlijioari zegozkion ideietan erbesteratutako hainbatenekin, eta herriaren idearioan eragiteko tresna izatetik haratagoko kultur balioaren ikuspegia zutenak.

Aldez edo moldez, aztergai den sariketak askotariko esparruetako emigratuen beharri zehar eta ikuspegi erantzun nahi izan zien: batetik, sorterrian ekoitzi eta zabaldu ezin zen testugintzaren bidez aberriaren eta hizkuntzaren homologagarritasunaren aldeko apustua egin nahia zegoen sariketaren oinarrian (gogoratu itzulpena suspertzea gakotzat jotzen zela erbesteko euskal gobernuaren kultura-planean, normalizazio linguistiko-kulturalaren bidetik), sorterrian zentsurak eragindako hutsunea orekatzeko guraria, alegia; eta, bestetik, Pariseko Eskual Etxeko jardunerako kultur ekintzak sortu nahia eta jendea erakarri nahia zegoen, hots, Pariseko euskal kultur esparrurako ekimenak eta testuak sortzeko asmoa, PEEko jarduera handitu eta animazio kulturala osatzeko. Hala, erbestea eta sorterria kontuan hartzen zituen bilgunea sortu zen 1958ko sariketaren kariatara, eta garaiko literatur, hizkuntza eta kultur joera ezberdinetako testuek izan zuten lekua.

Lehen esan bezala, batetik, itzulpena gakotzat jotzen zen euskal kulturgintzaren esparruan eta, bestetik, antzerkia kultura-tresna baliagarria zen Euskal Etxeetan. PEEen lehenago ere jokatu izan ziren antzezlanak, arrakasta handiz. *Elgar* aldizkarian jasotzen da horren arrastoa. Adibidez, 1957ko otsaileko 84. zenbakian (4. or.) Enbata taldeak antolaturiko antzeppen baten berri ematen da «Berriketari» atalean, eta jakinarazten martxorako prestatzen ari direla Txekhoven *La Cerisaie* piezaren itzulpenean oinarritutako errepresentazioa. *Elgar* aldizkariaren 87. zenbakian lan hori bera antzeztu izana aipatzen da, bai eta bestelako lan antzeztuen berri eman ere: *Okilomendi: Jaun Mera*, *Pettan Mihiku* eta *Adam eta Eva*. Ekintza horietara erakarritako jende-kopuru handia aipatzen da. Era berean, 1957ko martxoko 85. zenbakian ere, «L'Euskararen eguna» atalean, dakar Guilsouren *Pettan mihiku* antzezlan euskaratua (*Medecin malgré lui*, Molière) jokatu zutela. Antzerki-testuen gaineko gogoetak zein itzulpenari buruzkoak ere argitaratu izan ziren *Elgar* aldizkarian (ikus adib. «Les problèmes de la traduction. Probleme de l'ironie» artikulua edo «En Lisant. Canico et Beltchitine» 85. zenbakian); eta itzulitako testu laburrak ere argitaratu ziren (ikus adib. 1957ko 86. zenbakian, Jon Miranderen poema baten frantsesezko itzulpena eta jatorrizkoa, edo 87.ean «Parise Bazterretik», non J.B. Uthurralket saioa egiten duen Pasteurren eta Hugoren gutun bi

zuberara itzuliz). Bada, itzulpenaren garrantziari buruzko kontzientziaren eta antzerkia kultura gizarteratzeko tresna egokitzat jotzearen konbinazioan egon liteke, agian, aztergai dugun sariketaren haztegia. Halaber, kontuan hartu behar da Ipar Euskal Herriko antzerkiaren eta antzerki-sariketen goraldi-garaia zela ordukoa (Sudupe, 2010, 7. or. eta 465. or.).

Sariketako epaimahaikideek eta saretzeak (Chabagno-Guilsou-Ibarrondo-Leizao-la-Mirande) garaiko Pariseko kulturgileek helburu komun baten alde bat egin nahia erakusten du eta, era berean, partaide ziren esparruen heterogeneotasuna ere bai. Halaber, epaimahaiaren izaerari, jardunari eta sariketaren bilakabideko parte-harzteari begiratuta, PEEko dinamikak eta gatazkak agerian geratzen dira.

1942az geroztik *Gure Herria* aldizkarian hainbat artikulu emana, eta *Elgar* aldizkarian ere sarri idatzi zuen Chabagno abade aldudarrak. Pariseko Eskualzaleen Biltzarra taldean euskara-eskolen arduradun izan zen. Bada, eskola horiez gainera, *Elgar* agerkaria, hitzaldiak, Gernika dantza-talde eta abesbatza izan ziren 1933an sortutako Eskualzaleen Biltzarraren atal hori, helburu zuena euskararen garapena eta kultur proiektu bat sortzea Parisen. PEEko gainerako taldeen aldean, jendarte burgesagoa eta intelektualagoa biltzen zuen, eta kideetako batzuk Frantziako funtzionarioak ziren, antiklerikalak. Paul de Rocca-Serra Legarralderen bulegotik zuzentzen ziren jarduerak elkartearen buru M. Ibarrondo zela (Camus, 2003). Bada, kultur helburuek lotzen zuten Chabagno talde horretara, bera erlijio gizona baitzen: Parisko Atzerriko Misioen Lagundiko idazkari orokorraren kargua izan zuen (Euskaltzaindia, d.g.). Euskaltzaindiko kide gisa aurkezten da *Elgar* aldizkariko berrietan (1950eko urriaren 27an izendatu zuten euskaltzain urgazle). Berau da aztergai dugun sariketaren hizkuntza-gaietarako erreferentzia, esaterako, sariketaren kariatara *Elgar* 98an (2. or.) tokiko aldaeren aldean orokortuenen alde egin behar dela adierazten duenean Ibarrondok edota 99. zenbakian testuen zuzenketa-proposamenak egiten direneko artikulua idaztean. Chabagnok 1961ean alde egin zuen Parisetik, eta horrek ere eraginik izan dezake sariketaren etorkizunean. Berau da, inondik ere erlijio-gizona izanik ere, Eskualzaleen Biltzarra taldeko Ibarrondorengandik gertu dagoen kidea, baina, era berean, Miranderekin bat egiten ez zuena: Sudupek (2010, 461. or.) azaltzen digunez, Mirandek Chabagnorekin ez elkartzeko baldintza jarri zuen epaimahaikide izateko lehiaketa honetan.

Euskaltzaindiaren webgunean (d.g.) ageri denez, erlijio-gizona eta euskaltzain urgazlea zen Guilsou abadea ere (Senpere, 1920 - Paris, 1993). Bere idazlumatik sortu zen lehenago aipatutako *Petan mihiku: irri egiteko ikusgarria hirur zatitan* (1951), PEEen 1957an jokatua. Badirudi berak ondutako *Nesken aldi* ere taularatu izan zela Mugeiren, Anton Txekhoven *Gerezieta* obra oinarritzat hartuz (EKE, d.g.). Bere lumakoak dira, halaber, *Gure Herria* aldizkarian emandako *Gazte: seme galdua* (1950), *Koropilo Azeri zaharra* (1952) eta *Gizona* (1953) antzezlanak. *Nire lehen katichima* (1954) lana idatzi zuen, bai eta beste antzezlanik eman ere: *Bi semeak*, *Bazko goizean*, *Idek atea* eta *Sendagin kaskonta* (Estornes, d.g.). Manu de la Sotarenetik *Bihotz apala* eman zuen euskaraz (Literaturaren klasikoak, d.g.). Inondik ere Pariseko Eskual Gazteria talde-tik gertu da Guilsou bikarioa, Parisera joandako gazteen erlijio-bidean eragin nahian. Bada, gai horri buruz idatzi ere egin zuen, *Herria* aldizkarian eman baitzuen «Jainkoa

soroetan» izeneko narrazioa, erakusteko Pariseratutako gazte existentzialisten bizitzetan Jainkoa leku orotan agertzen zela (Sudupe, 2010, 508. or.). Pariseko Eskualdun Gazteriak erlijio-ariketak antolatzen zituen eta igandero biltzen hasia zen talde baten eskutik sortu zen 1954an, besteak beste, Piarres Xarritonek sustatuta. 1952az geroztik, bilguneak, mezak, etorri berrientzako arreta... antolatu zituzten, espiritu pastorala eta soziala zutela, Parisera etorritako gazteen bidelagun. Iganderoko bilguneetarako espazio egoki baten beharrak eragin zuen lokal baten bila hastea eta talde honen izenean erosi zen PEEren lokalak. Aurrerago izena aldatu zuen taldeak eta Pariseko Eskual Etxe izatera igaro ziren (Camus, 2003).

1959rako aurreikusten zen sariketarako antolakuntza-mahaian ez da Guilsou ageri. Haren ordezkari Ferdinand Hirigoyen sozialista (Larronde, d.g.), Miarrizteko alkate izandakoa, zerrendatzen da. Bestelako arrazoiak ere egon litezke Guilsou antolakuntzatik erretiratu izateko, baina *Elgar* aldizkariko 103. zenbakian Eskualzaleen-Biltzarren ataleko testuak bide ematen digu pentsatzeko Eskual Etxean bizi zuten «1959ko krisi» delakoak (Camus, 2003) izan zezakeela horretan zerikusirik. Izan ere, «Est ce que l'Euskalduna n'aurait pas un geste pour la culture basque? Et Eskual-Etchea?» (Ezin ote dezake eskualdunak euskal kulturaren aldeko keinurik egin? Eta Eskual Etxeak?) esapidetan bada, beharbada, talde guztiek bat egiteko deia, edo baita, agian, Eskual Gazteria taldea seinalatzeko nahia; izan ere, gogoratu beharrekoa da azken horrek zuela PEEren izena harturik, haren izenean zegoela etxea ordaintzeko kreditua eta, halaber, gainerako taldeek Eskual Gazteria taldearen «nagusitasuna» edota «erlijioa inposatu nahia» kritikatzeko zutela. Bada, lokalaren artezkaritza nori osatu behar zuen, eguneroko jardunean erlijioak zer leku behar zuen, Parisera etorritako kapilauak bertan bizi behar ote zuten, kapera eraikitzeke lanen ordainketak nori egin behar ote zituen... gatazka-gai izan ziren. Krisirik handienetako bat 1959an gertatu zen, biltzar orokorrean zuzendaritzako kide izateko egindako pertsonen hautaketaren harira, eta orduko krisialdiak 1960an PEEren estatutuak berritzea eta artezkaritza taldeko kideak birbanatzea ekarri zuen, bai eta 1961ean Eskualduna, Eskual Etxea eta Eskualzaleen Biltzarra elkarrekin federatzea ere: zenbait jarduera, baliabide eta gastu partekatu arren, elkarrekin bakoitzak bere aldetik jarduten zuten, eta bakoitzak bere kutxa zuen (Camus, 2003).

Pierre Ibarrondo (Garris, 1905 - Baiona, 1983), Pariseko Eskualzaleen Biltzarra elkarrekin lehendakari izan zen 1954 eta 1963 bitartean, euskal kulturaren eta hizkuntzaren defendatzaile, hainbat artikulu idatzi zituen, bai eta hitzaldiak antolatu ere. Letretan lizentziaduna zen, eta diplomatua École libre de Sciences Politiques delakoan. Bere ibilbidearen parterik handiena Parisen egin zuen, eta bertan hainbat kargu publiko bete zituen, besteak beste, Frantziako Ogasunaren Ministerioan eta Estatistikarako Institutu Nazionalan. Ez zen erlijio-zalea, BIGA elkarrekin sortu zuen, euskaldun laikoekin elkarrekin (Añamendi Eusko Entziklopedia, d.g.). Sudupek (2010, 461. or.), Xarritonen hitzak ekarri, azaltzen du sozialisten artean postu garrantzitsuak izan zituela, PEEko apezkeria garbitu nahi izan zuela eta Mirande eta Peillen bezalako gazteak sozialismo-rako bildu nahi izan zituela, lortu ez bazuen ere. Ibarrondo da gainerako mahaikideen lotune, gure ustez. Gainera, ikusirik hark sinatzen dituela EBren izenean sariketari buruzko artikuluak, lehiaketaren sustatzaile nagusia izan zela esan daiteke.

Lehenago esan bezala, Parisen zen Agirreren erbesteko gobernua, eta Singer kalean zuten beren lokala (Camus, 2003). Talde horren ordezkari dugu Leizaola (Donostia, 1896-1989), Justizia eta Kultura Sailburu izan zena 1936ko lehenbiziko Eusko Jaur-laritzan. «Le basquisant bien connu» gisa aurkezten du Ibarrondok Leizaola politikaria. Zuzenbide ikasketak egina, gune katolikoaren idazkari izana, Eusko Ikaskuntzako kongresuetako lankide, Bilboko Udaleko Ogasunaren ataleko buru, EAJko kide eta ordezkari izan zen hainbat kargutan. Lehendakariorde izanik, 1960an Jose Antonio Agirre hildakoan berau izendatu zuten lehendakari. Aldizkarietan egin-dako ekarpenez gain, euskal literaturari buruzko lanak ere idatzi zituen, batez ere ahozko poesiari buruzko monografiak eta entziklopedia-atalak (Estornes Zubizarreta, d.g., a). Erbestean ondutako euskal kultur planaren ordezkari dugu sariketa honetan Leizaola.

Pariserako joandako guraso zuberotar euskaldunen semea zen Jon Mirande (Paris, 1925-1972) paristar idazlea, «idazle» zein «poeta» gisa aurkezten zaiguna sariketaren inguruko *Elgareko* testuetan. Finantza Ministeritzako langile izan zen 1947az geroztik, eta ordutik aurrera hasi zen euskara ikasten. Eusko Ikaskuntzaren kongresuko idazkari izana zen. 1950eko hamarkadan euskal aldizkarietan argitaratu zituen bere lanak, eta ezagun da, literatur lanez gainera, maila ideologikoan garaiko idazleekin izandako desadostasunengatik. *Euzko Deya* eta *Gernika* aldizkarietan emandako testu zenbait, adibidez, eskandalua eragin zuten nazionalismo ortodoxoaren baitan (Otaegi, 2000) ezen, Idoia Estornesek laburbiltzen duenez: «bere gairik istilutsuenak bere herrikideen ohiko sexu-morala eta sinesmenak zalantzan jartzen zituenak izan ziren» (Estornes Zubizarreta, d.g., b). Ikusi dugunez, arrazoi bertsuengatik ez zen sariketan Chabagnorekin batera eseri. Sariketaren urte berean euskaltzain urgazle izendatu zuten eta, nolabait, «literatur aditua»-ren rola betetzen du sariketan.

Epaimahaiaren ebazpen-irizpideei erreparatuta, esan daiteke garaiko literatur eta antzerki-ekoizpenean gertatzen ari zen joera-aldaketaren isla direla saritutako lanak: aurreko sasoiaren aldean, ez da espero herri-teatrorik edo teatro nazionalik, ez eta propaganda-teatrorik ere, garaiko Mendebaldeko kulturako literatur mugimenduetako lan eredugarriak euskaraz ematea da gakoa, egokitzapenik egin barik eta testuak etxekotzea saritu barik. Hain zuzen ere, horiei buruzkoak aipatzen ditu Ibarrondok *Elgar* aldizkariko artikuluetan. Halaber, autoretzaren balioa ere nabarmentzen da horietako batean, ikusi dugunez.

Testuen kultur egokitzapenak ekiditea da auzietako bat, eta bestea hizkuntza-zuzentasuna; hala, hizkuntzaren normalizazioaren auzia eta hizkuntzaren zuzenketa-auziak dira epaimahaikideen gogoetagaietako batzuk, ikusi dugunez.

Sariketaren oinarrian PEEko jarduna aberastea ere bazegoenez gero, testuak jokatze modukoak izatea ere izan zen eztabaidagaietako bat epaimahaikideen artean, eta badirudi Shakespearearena horretarako gertu ikusi ez izanagatik, bigarren saria Pocheluren lanari eta are antzezteko errazago hirugarren saria Minaberryren lanari eman izanaren arrazoia hor egon litekeela. Izan ere, azken hori egokitzapena izanik ere saritu egin zen (Hochwalderrena ere egokitutako testua da, Pocheluk itzulitakoa

Parisen emandako egokitzapen baten itzulpena baita, geroago ikusiko dugunez). Egokitzapenak ere saritu izanak erakuts dezake desadostasunak desadostasun, denen gustua egiteko nahia edota denen beharrizanei erantzuteko moduko epaia eman zela.

Esan bezala, sariketara aurkeztutako eta sariketako lanak uneko teatro-testuen joera ezberdinen erakusgarri dira. Ale ditzagun sarituak:

Bedita Larrakoetxea (1894-1990) zeanuriarrak «Ameriketatik», Uruguaiako Salta hiririk, bidali zuen *Binxako Saleroslea* testua sariketara, Shakespearerenetik itzulirik. Erbesteratutako haur-talde batekin Britainia Handian egon ondotik, Uruguain egon zen 18 hilabetez eta Argentinan bizi izan zen ondoren (1941-1972 bitartean, artean Euskal Herrira bidaiaren bat egin zuen), eta irakasle aritu zen bertako Colegio Belgranon (Arana Martija, 1990). Itzulpena sorteriarekin konektatzeko bidea izan zen Larrakoetxearentzat: «Etxetik kanpo sentitzeak eragindako ezinak, herrierekiko eta hizkuntzarekiko zuen lotura nabarmendu, ea euskararen egoera larriak bultzatu zuen itzulpengintzan hastera» (Gereñu, 2012, 435. or.). Bada, garai hartan Shakespeareren (1564-1616) lan guztiak itzultzeko proiektuan murgildurik zegoen: 1974-77 bitartean argitaratu ziren 6 liburukitan *W. Shakespearen antzerki guzti-guztiak euskeraz eta hori baino lehen 1957 eta 1959 urteen bitartean Euzko-Gogoan eman zituen Macbet (1957, Macbeth), Lear Errege (1958, King Lear) eta Ekatxa (1959, The Tempest)*. Larrakoetxearen itzulpen horien helburua zen «Literatura-lan grekolatindarren itzulpenarekin gertatzen zen bezala, [...] euskal literatura-sistema indartu edo osatzea» eta «Era berean, euskara beste edozein hizkuntza bezain gai dela erakutsi nahi da literatura-lan “handiak” itzultzeko» (Jaka, 2012, 131.-132. or.). Erabat lotzen zaie, beraz, erbesteko Eusko Jaurlaritzaren politikari. Guk dakigula, lana ez zen jokatu eta hedapen zabalik ere ez zuen izan, seguruenik hizkuntza-ereduaren auziatatik, zeina, hein batean, egileak berak 1976ko obraren hitzaurrean justifikatzen duen: dio astiro irakurri beharrekoa dela testua askotan ondo ulertuko bada, baina, bere esanetan, ez euskararen kariatara, jatorrikoa ere hala irakurri behar delako baizik (Larrakoetxea apud Jaka, 2012, 132. or.).

Literatura unibertsaleko autoreen bidez euskal irakurlearen heziketa akademikoaren aldean, bestelako heziketa-asmo bat zeukan Parisen bizi bide zen Julien Pocheluk (1935?-2020?)⁴ *Zeruan bezala lurrean ere* antzerki-lan itzuliarekin; asmo erlijioso-didaktikoa zuela esan genezake. Ez dugu Pochelu egile bitirindarraren datu biografiko askorik, Ipar Euskal Herriko antzerkigileen zerrendan idazle-itzultzaileen zerrendan jasotzen denetik haratago (EKE, d.g.). Gorago esan bezala, PEEen egindako antzezlan batzuetan jokalaria aritu zela, eta Ibarrondoren ezaguna zela. *Egan* aldizkarian hiru itzulpen-lan eman omen zituen (Literaturaren zubitegia, d.g.), nahiz eta Armiarma webgunearen arakatzaileren bidez bilaketak eginda bakarra ageri den; zehazki, Bernard Da Costa (1939-) baionarraren lan euskaratu bat. Da Costarena Parisen antzeztu omen zen 1972an, eta Pocheluk euskaraz eman urte berean (Idazleen zubitegia, d.g.). Bada, lehenagokoa da sariketara aurkeztutako hau. Fritz Hochwalder (1911-1986) austriarraren lana izanik ere,

4 Pocheluren biografia idatzien faltan, Parisen bizi izan zela kontuan hartuta, hilberri hau izan daiteke harena behar bada: <https://www.libramemoria.com/defunts/pochelu-julien/42693cfbaffe4daeb077fc6a7c2db048> (kontulta-data: 2022/11/26).

R. Thieberg⁵ eta Jean Mercurek (1909-1998) eman zuten frantsesez, eta 1952an jokatu zen Parisen. Pochelurena testu horren itzulpena da (antzezteko modukoa inondik ere, jada antzeztua zegoen egokitzapen bat zen eta), EKEren digitalizazioen eskutik eskuratutako dokumentuan zehazten denez⁶. Antzezlanak Jesusen konpainiak Paraguain sortu nahi zuten estatu ideala jomugan misiolariak bizi izandakoak eta beren kontra etorritakoak ditu ardatz, irakatsi nahirik nagusiarekiko eta gehiengoarekiko obedientziak batzuetan txikiak kaltetzen dituela. Dakigula, ez zen argitaratu. Badirudi jokatzeko asmoa egon zela, hori jasotzen du Ibarrondok *Elgar* aldizkarian (120, 2. or.) eta *Gure Herrian* (160, 5. or.) (Bilketa Euskal Funtzen Ataria, d.g.); hizkuntza-zuzenketak bidean omen ziren (*Elgar*, 99, 3. or.) eta zuzenketak egiteko pasatu omen zioten testua Peilleni (komunikazio pertsonala 2014-11-9), baina ez dago jokatu izanaren aztarnarik. EKEren eskuetan da testua jasotzen duen makinizkribu bat (bidenabar, zenbait zuzenketa dituen gainean, baina ezin esan norenak diren), eta honek sarean eskuragarri jarriko du, Euskal Antzerki Taldeen Biltzarraren funtsetatik digitalizatuta. Ematen duenez, Eskualdun Gazteria kristau gazteen elkartearen antzerki-obrak jaso zituenean iritsi zen testu hori EATBra eta, ondoren, EKEra. *Zeruan bezala lurrean ere* anonimoen artean zerrendaturik dago, testuan bertan ageri den arren Pochelurena dela⁷: «Fritz HOCHWALDER Autrichianoaren lan bat Julien POCHELU-k eskuaraz itzulia R. Thieberger eta Jean Mercure-k frantseseza ezarrik, Athénée-ko teatrian eman izan da lehen aldikotz 1952-ko urthean Parisen». Eskualdun Gazteria elkarte MRJC (Mouvement Rural de la Jeunesse Chrétienne) taldearen euskal adarra zen, teatroa baliatzen zuena bere jardunean. 1956an lehiaketa bat ere antolatua zuen, komedia berriak saritzeko, zati bakarrekoak eta bikoak, sail ezberdinetan saritzeko. Marie Jeanne Minaberryk hartu zuen bigarren saria lehiaketa horretan, zati bakarreko komedien atalean (EKE, d.g.).

Hain zuzen ere, Marie Jeanne Minaberryrena (1926-2017), gerora iparraldeko haur- eta gazte-literaturan eta herri-testuen bilketan zein horietan oinarritutako testuen sorkuntzan erreferente izango den autorearena, da aztergai dugun sariketaren 3. saria eskuratu zuen *Konjoratia*. Garaian, teatro-testuak ere sortu zituen. Esan dugunez, *Konjoratia* itzulpen bat bainoago egokitzapen bat da, baina, halatan ere saritua izan zen, antzeztua izateko moldeak baitzituen (gogoratu bigarren saridunaren aurretik jokatzeko egokia dela zioen epaimahaiak). Lan honek irudikatzen du sariketaren esparruan, nolabait, une hartan Ipar Euskal Herrian oso bizirik zen teatro-moldea, aisiarako irri-komediarena. Charles Galtier (1913-2004) etnografo eta folkloristarena da *L'Ensorcelée* (1953), ekintza bakarreko fartsa. 1958an berean autoreak probentzeratik frantsesera itzuli zuen (BNF, d.g.). Ez dakigu zehazki zein izan zen Minaberryk baliatutako bertsoa. Dakigula, ez zen argitaratu, bai ordea sariketara aurkeztu izanagatik saritua izan ez zen *Izar buztan luzea* Sandro Casaricen italierazko *Cometa* lanetik abiatuta, Marcel Duboisek frantsesera moldatu zuen eta Minaberryk euskaraz emanda

5 Ez dugu haren jaiotza- eta heriotza-datei buruzko daturik.

6 Ikus faksimila hemen: <https://files.batekmila.com/~batekmil/antzerkia/pdf/zeruan-bezala-lurrean-ere.pdf> (kontsulta-data: 2022/11/26).

7 Ikus faksimila hemen: <https://files.batekmila.com/~batekmil/antzerkia/pdf/zeruan-bezala-lurrean-ere.pdf> (kontsulta-data: 2022/11/26). EKEren transkripzioa: <https://files.batekmila.com/~batekmil/antzerkia/pdf-t/zeruan-bezala-lurrean-ere.pdf> (kontsulta-data: 2022/11/26).

Gure Herrian argitaratu baitzen 1958-1959 bitartean. Hala, Minaberryk jokatzeko testuak zituen ments eta, egokitzapen bat izanik ere beste egokitzapen baten itzulpena izan zitekeen, seguruena, *Konjoratia*, *Izar buztan luzea* bezalaxe (eta, bidenabar, baita Hochwalderrena bezalaxe).

Saritutako lanen argitan, zeinek bere hizkuntza eta itzulmoldeetan, eta euskarazko kultura akademikoaren, hezkuntza erlijioso-moralaren eta aisialdiaren menean jarriarik kasuan kasu, atzean utzi dira erbesteko teatroaren zenbait ezaugarri, aberiaren eta gerraren oroitzapena zein erbesteko esperientzien errepresentazioak (González-Allende, 2016a, 66. or.) eta, nor bere hartzaileak gogoan (unibertsitate-ikasleak, herritarrak...) eta nor bere helburuekin (hezkuntza akademikoa, asmo ideologikoa, aisia...), beste herrialde eta hizkuntza batzuetan egiten zen teatroaren isla ekarri nahi zuten teatro-idazle berriek, antza. Bada, ildo askotarikoei egin nahi izan zien leku 1958ko sariketako epaimahaiak.

Alabaina, lanak argitaratu ez izanak eta jokatu ez izanak (bai eta gaur arte testuak identifikatu ez izanak ere) erakusten du hedapen eta harrera handirik ez zutela izan testuok. Garaiko komunikazio-bideetarako oztopoek, zailtasun ekonomikoek, euskarazko eta euskal kulturaren aldeko administrazioaren ezegonkortasunak, uneko egoera soziopolitikoaren aldaketak, Pariseko erbestean zegoen Agirre lehendakariaren heriotzak, sorterrian eta PEEn gertatzen ari zen belaunaldi-aldaketak, sariketa sostengatzen zuten eragileen arteko gatazkak, sariketaren beraren jarraipen ezak... izango zuten horretan eraginik. Bada, inondik ere, González-Allenderen (2016a, 68. or.) hitzak berriz ekarrita, diasporako zirkulu minoritarioak ziren balizko hartzaileak; bada, testu batzuen kasuan hain da txikia hartzaileen zirkulua ezen epaimahaira mugatzen baita.

Egin ziren sariketarako sortutako testuak jokatu ez izanari buruzko kritikak. Sudupek (2010, 460.-461. or.) jasotzen duenez, Jean Etxeparek «behin eta berriz antzerki berberak ematen ari zirela han eta hemen salatzen zuen», eta bere buruari galdetzen zion ea zergatik eman behin eta berriz komedia berak, zergatik sustatu itzulpenak sariketetan gero jokatuko ez baziren.

1958ko sariketaren eta saritutako testuen bilakabideari begiratuta esan dezakegu kultur belaunaldien aldaketa-une baten isla dela, eta garaiko kultur eta ideologia-joera nagusiak integratzeko espazio ere izan zela.

7. AZKEN BURUKOA

Lan honetan 1958an Parisen antolatutako itzulpen-sariketari, hots, itzulpen-ikasketa soziologikoen argitan kontsakrazio-agentzia zehatz bati, buruzko nondik norakoak agerrarazi eta azaldu ditugun aldetik, itzulpenaren historiarako datu arkeologiko eta azalpen berri zenbait eman ditugu: barne-eremuaren autonomizazio aurreko sari ez-sistematikoa eta salbuespenezkoa dela adierazi dugu, diasporako eragileen esku-hartzearen garrantzia azpimarratu da eta sariketaren antolatzaileak identifikatu eta testuinguratu ditugu, bai eta saritutako testuen egileen gaineko azalpenak eman ere. Aurkeztutako lanen arteko

kasu batean, orain arte argitu gabeko autore-testu identifikazioa argitu dugu, eta gainera, erbesteko itzulpengintzaren eta antzerkigintzaren historian nabarmendu izan ez den autore bati, Julien Pocheluri, alegia, leku egin diogu. Halaber, sareak marraztu ditugu biografien eta joeren artean, historia, entziklopedistatik haratago eremuen baitako eragileen harremanak erakutsiz, itzulpenaren soziologiak eskatzen duen gisan.

Berebat, 1958ko Pariseko sariketa testuinguru soziopolitiko eta kulturalen kokatu dugularik, erakutsi dugu zenbaterainokoa izan zen erbesteko heterogeneitatea, eta nola eragin zien antolakuntzari eta epaiei. Ikusi dugu zer-nolako talde eta joera ezberdinak gurutzatzen ziren Parisen, eta horrek nolako gatazken arrastoak utzi zituen sariketaren antolaketan eta bilakabidean. Hala, ikusi dugu erbesteko euskal komunitateak orekatu egin nahi izan zuela, hein batean, hego Euskal Herrian zentsurak eraginda zegoen hutsunea, bat eginik erbesteko Jaurlaritzaren kultura-planaekin. Testuinguru horretan aldizkariak izandako lekua ere ikusarazi dugu (sariketaren inguruko berri-emateari dagokionez eta testuen argitalpenari dagokionez), bai eta teatro-testu asko idatzizkoan eta jokatu gabe geratu zirela ere. Aldi berean, Ipar Euskal Herriko komunitatearen kultur eta teatro-jardunaren eta sariketaren goraldiaren adibide ere bada sariketa hau. Berebat, sariketak Pariseko euskaldunen komunitatearen aisian eta kultur jardunean eragin nahi zuela azaldu dugu.

Gainera, ikusi dugu 1958ko sariketa erbesteko komunitatea, euskal komunitatea, euskal kulturagintza... jasaten ari zen belaunaldi-aldaketa gertatzen deneko unean egin zela bete-betean. Ageri da kulturagintza euskararen normalizazioarekin lerratu zela (Torreal-dai, 1997, 130. or.): ezin da ahaztu testuak euskaraz jokatzeko sortzen dela sariketa, eta gogoratu behar da lehenago beste euskal etxe batzuetan gaztelaniazkoa zela jardun hori batik bat, muina teatrogaien bidez euskal identitatea sustatzea zela, beste hizkuntza batean izanik ere (Gil Fombellida, 2009, 125. or.). Testuen hautaketan eta itzulpenari buruzko auzietan ere ageri da belaunaldi-aldaketa: kezkak ez dira atzerriko testuak taularatu behar ote diren (horixe bera du xede sariketak), kezkak ez dira testuak xede-kulturara egokitu beharra, ezpada alderantziz, izenak eta leku-izenak gorde beharra; kezkak ez dira hautatutako testuak euskal nortasunarekin lotu beharrenekin lotuta ote dauden, ezpada euskaraz ondo ematea. Halaber, kezka da itzulpen-/egokitzapen-ereduei buruzkoa. Bada, hala, aztergai honen bidez sariketak agerrarazi zituen itzulpenaren gaineko garaiko gogoetak zein izan ziren ere ikusarazi dugu (hizkuntza-auziei eta itzulpen/egokitzapen bereizketari zegozkionak batik bat).

Sariketara aurkeztutako testuen harrera txikia izan zen, erbesteko argialetxe batek eman zuen horietako bat, eta beste saridun biak ez ziren argitaratu. Hala, argitaratutako liburuen ekoizpenetik kanpo geratzen den jardunari ere egin diogu argi azterlan honen bidez, agerian utziz, bidenabar, zenbateko arreta jarri behar zaien oraindik ere bildu, sailkatu eta digitalizatu gabeko funtsei (Pocheluren testua 2019an eta 20an digitalizatu zen, eta ezinbestekoa izan da azterlan honetako datu zenbait lortzeko).

Azterlan honek ez ditu, noski, gaiari buruzko ikerbideak ixten, atea zabaldu besterik ez du egin jatorrizko testuen eta itzulitakoen arteko erkaketaren bidez, adibidez, itzulpen-estrategiak aztertu eta garaiko joerekin nola bat egiten zuten ikusteko. Halaber,

3. atalean zerrendatu diren sariketetako datu xeheekin erkaturik, sariketen eta itzulpenaren eremuaren bilakabidearen ikerlerroan ere bada pausorik emateko.

8. ERREFERENTZIAK

- Aldekoa, I. (2004). *Historia de la literatura vasca*. Erein.
- Arana Martija, J.A. (1990). Bedita Larrakoetxea Agirrezabala (1894-1990). *Euskera*, 36(2), 343-345.
- Ariznabarreta, L. (2009). Pedagogia xede Martin Ugalderean antzerki lanean. In I. Beti Sanz & M.K. Gil Fombellida (koord.), *Exilio y Artes escénicas. Arte eszenikoak erbestean* (427.-445. or.). Saturraran.
- Armiarma proiektua. (d.g.). *Klasikoen gordailua*. <https://klasikoak.armiarma.eu/>
- Armiarma proiektua. (d.g.). *Literaturaren zubitegia*. <https://zubitegia.armiarma.eu/>
- Auñamendi Eusko Entziklopedia (d.g.). Ibarrondo, Pierre. In *Auñamendi*. <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eu/eu/ibarrondo-pierre/ar-72351/>
- Baionako Herria. (d.g.). *Bilketa Euskal Funtsen Ataria*. <https://www.bilketa.eu/>
- Bibliothèque Nationale de France. (d.g.). BNF Data. https://data.bnf.fr/fr/11904001/charles_galtier/
- Camino, I. (2018). Bigarren Euskara Modernoa. In J. Gorrotxategi, I. Igartua & J.A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia* (345.-468. or.). Eusko Jaurlaritza.
- Camus, A. (2003). *La Maison Basque de Paris. Pariseko Eskual Etxea 1952-2002*. Elkar.
- Elgar journal mensuel des basques de Paris*. [1934]. Paris.
- Estornes, B. (d.g.). Guilsou, Paul. In *Auñamendi*. <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eu/eu/guilsou-paul/ar-57421/>
- Estornes Zubizarreta, I. (d.g., a). Leizaola Sánchez, Jesus María. In *Auñamendi*. <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eu/eu/leizaola-sanchez-jesus-maria/ar-80213/>
- Estornes Zubizarreta, I. (d.g., b). Mirande Aypharsorho, Jon. In *Auñamendi*. <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eu/eu/mirande-aypharsorho-jon/ar-96225/>
- Euskal Kultur Erakundea. (d.g.). *Eke*. <https://www.eke.eus/eu>
- Euskaltzaindia. (d.g.). <https://www.euskaltzaindia.eus/>
- Gandarias, Z. (2018). *Why Euzko-Gogoa? The Basque literary and intellectual identity in the diasporic magazine Euzko-Gogoa (1950-1960)* [Doktore-tesia, UPV/EHU & University of Reno]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/33104>
- Gereñu, I. (2009). Antonio María Labayen, euskal antzerki gizona. In I. Beti Sanz & M.K. Gil Fombellida (koord.), *Exilio y artes escénicas. Arte eszenikoak erbestean* (473.-487. or.). Saturraran.
- Gereñu, I. (2012). Gure antzerki idatzia 1936ko erbestealdian. In J.A. Ascunce, I. Gereñu & M.K. Gil. (arg.), *1936ko euskal erbestealdiko antzerkia* (288.-458. or.). Hamaika Bide Elkartea.
- Gil Fombellida, M.K. (2008). Antzerkia eta nortasuna. Gerra Zibilaren aurreko euskal erbesteko fenomeno dramatikoari buruzko lehen oharrak. In J.A. Ascunce (koord.), *El exilio: debate para la historia y la cultura* (333.-343. or.). Saturraran.

- Gil Fombellida, M.K. (2009). Antzerkia eta nortasuna. Gerra Zibilaren aurreko euskal erbesteko fenomeno dramatikoak. In I. Beti Sanz & M.K. Gil Fombellida (arg.), *Exilio y artes escénicas. Arte eszenikoak erbestean* (417.-424. or.). Saturrarán.
- Gil Fombellida, M.K. (2016). Teatros del exilio vasco. In I. González-Allende (arg.), *El exilio vasco. Estudios en homenaje al profesor José Angel Ascunce Arrieta* (117.-142. or.). Deustuko Unibertsitatea.
- Gipuzkoako Foru Aldundia. (d.g.). *Atzoko prentsa digitala*. <https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DKPAZokoPrentsaWEB/>
- González-Allende, I. (2016a). «El mundo del exilio es parte de nuestra historia y nuestra cultura». Entrevista a Jose Ángel Ascunce Arrieta. In I. González-Allende (arg.), *El exilio vasco. Estudios en homenaje al profesor José Angel Ascunce Arrieta* (43.-78. or.). Deustuko Unibertsitatea.
- González-Allende, I. (2016b). José Ángel Ascunce Arrieta y la pluralidad del exilio vasco. In I. González-Allende (arg.), *El exilio vasco. Estudios en homenaje al profesor José Angel Ascunce Arrieta* (11.-25. or.). Deustuko Unibertsitatea.
- Heilbron, J. & Sapiro, G. (2002). La traduction littéraire, un objet sociologique. *Actes de la Recherche en Sciences Sociales*, 144, 3-5.
- Ibarluzea, M. (2017). *Itzulpengintzaren errepresentazioak euskal literatura garai-kidean: eremuaren autonomizazioa, literatur historiografiak eta itzultzaileak fikzioan* [Doktore-tesia. UPV/EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/26629>
- Ibarluzea, M. (2020). Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz. In E. Santazilia, D. Krajewska, E. Zuloaga & B. Ariztimuño (arg.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari. Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca* (315.-327. or.). Nafarroako Gobernua. <https://doi.org/10.35462/fontes50urte.20>
- Ibinagabeitia proiektua. (d.g.). *Euskal aldizkarien gordailua*: <https://andima.armiarma.eus/>
- Irujo, X. (2009). *Itzulpena erbestean. Bingen Ametzagak Ameriketara eraman dako lanak (1938-1968)*. Utriusque Vasconiae.
- Irujo, X. (2012). *Expelled from the Motherland. The Government of President Jose Antonio Agirre in Exile, 1937-1960*. Center of Basque Studies, University of Nevada.
- Jaka, A. (2012). *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan*. Euskaltzaindia.
- Larronde, J.C. (d.g.). Hirigoyen, Ferdinand. In *Auñamendi*. <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/hirigoyen-ferdinand/ar-74961/>
- Onaindia, S. (1974). *Euskal Literatura (II)*. Etor.
- Onaindia, S. (1977). *Euskal Literatura (V)*. Etor.
- Otaegi, L. (2000). *Jon Mirande (1925-1972)*. Eusko Jaurlaritza.
- Pariseko Eskual Etxea. (2022). www.eskualetxea.com
- Sapiro, G. (2014). *La sociologie de la littérature*. La Decouverte.
- Sudupe, P. (2010). *Tradizioa eta modernitatea 50eko hamarkadan. Euskal kulturaren biziberritze gatazkatsua* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. Eusko Jaurlaritza.

- http://www.euskara.euskadi.eus/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Pako_Sudupe_TESIA.pdf
- Susa literatura. (d.g.). www.susa-literatura.eus
- Torrealdai, J.M. (1997). *Euskal kultura gaur. Liburuaren mundua*. Jakin.
- Urkizu, P. (2000). Teatro del XX. In P. Urkizu (arg.), *Historia de la literatura vasca* (628.-648. or.). UNED.
- Urkizu, P. (2004). Traducciones vascas del Quijote y de otras obras cervantinas. *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca*, 10, 205-210. <https://doi.org/10.5944/rllcg.vol.10.2004.5889>
- Urkizu, P. (2009). Euskal antzertia erbestean (1937-1959). In I. Beti Sanz & M.K. Gil Fombellida (koord.), *Exilio y Artes escénicas. Arte eszenikoak erbestean* (349.-367. or.). Saturraran.
- Urkizu, P. (2012). Basque theater from costumbrismo to political symbolism. In M.J. Olaziregi (arg.), *Basque literary history* (245.-266. or.). Center for Basque Studies, University of Nevada.
- Urkizu, P. (d.g.). Anton Abbadia eta lore jokoak. In *Auñamendi*. <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/anton-abbadia-eta-lore-jokoak/ar-153835/>
- Zabala, J.R. (2016). Contra el silencio impuesto. Las publicaciones en lengua vasca del exilio de 1936. In I. González-Allende (arg.), *El exilio vasco. Estudios en homenaje al profesor José Angel Ascunce Arrieta* (99.-116. or.). Deustuko Unibertsitatea.

